

GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

75. zenbakia

95eko uztailak 21



Opor atarian jaiak nagusi

FOTO
Goen
ORDIZIA



5 FILME ERREBELATZEAN
4 BAKARRIK ORDAINTZEN
DITUZU

1995eko Urriaren 31 arte,
eta zure koloredun
negatiboetatik bakarrik

Banaka ekarri daitezke





Zeraingo Udalak Andramari jai onak opa dizkie herritar eta kanpotarrei

ZERAINGO UDALETXEA

Abuztuko egun horiek oso aproposak izan daitezke bertako txoko, ibilbide eta altxor historiko-artistikoak eza-gutu ahal izateko.

Zatoz, gonbidaturik zaude.



Serragi TAPIZ DENDA DEKORAZIOA

Goierri, 12

ORDIZIA

☎ 88 31 53

orkli, s.coop.



**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

"Goierritarrak" Kultur
Elkartea.

Dorre-etxea, 1.

(Correos-gaiean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 882719.

124 posta kutxa,

Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Maketazioa:

Mikel Albisu.

Publizitatea:

Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loinaz Agirre, Nekane Altuna eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria, Ana Irastorza, Jon Aizpurua, Izaskun Salazar, Aitziber Murua, Jon Mikel Arano, Pilare Mujika, Emeterio Sorazu, Idurre Eskisabel, Felisa Otegi, J.J. Balerdi, Iraida Martin, Josune Amondarain, Aitor Arza eta Asier Mendizabal.

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

Tirada: 4.900 ale. 4.700 harpidedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



Koldo Aldaberentzat Rikardo Arregi saria

Andoaingo Udalak urtean zehar euskaraz argitaratutako idatzizko kazetaritza lan onenak saritzen ditu. Aurten (GOIERRITARRAK 93an irabazi zuen herrietako aldizkari zegokien saria), Koldo Aldabe ataundarra izan da sarituetakoa bat, Euskaldunon Egunkarian hilean behin Nazioarteko orrietan (Jone Larrañagarekin batera) argitaratzen duen 'Munduaren Talaia' saila dela eta. "Hilean zehar gertatzen diren gertakari garrantzitsuen kronologia bat, eta hori laguntzeko, hileko gairik garrantzitsuenaren interpretazio bat, beste fotonotizi baten laguntzaz izaten da 'Munduaren Talaia'", adierazi digu Koldo Aldabek.

Lan baten errekonozimendua da sari hau ataundarrarentzat. "Saria emateko arrazoia eta sail hau sortzeko helburua bat izan da, bete-betea asmatu dute. Gure asmoa zera zen: beste egun-

kariekin ezin genuen konpetitu nazioarte mailan, eguneroko jarraipena egiteko korrespontsal falta dagoe-lako eta ditugunak epe laburrerakoak direlako. Teletipoen menpe gaude eta askotan gainera berri askok alde egiten digute ordutegi arazoa dela eta. Orduan pentsatu genuen gure irakurleei hutsune hori betetzeko zerbait eman behar geniola, hau da, hilean behineko interpretazio bat".

Iaz lizentziatu zen Kazaritza, eta 4 urte daramatza Egunkarian, hasiera-hasieratik Nazioarte sailean, erredakziotik ia mugitu ere egin gabe, munduaren berri emanez. "Tokian tokiko gertakizun garrantzitsuetara joango nintzateke gustora, gerretara, hauteskundeetara... Momentu honetan Bosniara joango nintzateke, azaroan Palestinara baldin eta hauteskundeak egingo balira...", aitortu digu.

Besteek esana

Migel Indurain

"Eldako Estatuko afizionatuen txapelketan arerioak izan ginen. Biok elkarrekin joan ginen eta erreleboak emanez helmugara iritsi ginen, berak irabazi zidan. Migel ez zen ezaguna orduan eta ni nahiko ospetsua nintzen, eta ezagutzen ez zuen batek, "gizajo" hark nola irabazi zidan esan zidan. Ez dut bere izenik esango, baina talde amateur bateko zuzendaria zen. Kuriosoa izan zen, nik ona aterako zela esaten nion eta berak behin eta berriz "manta" bat zela esaten zidan. A ze begia!"

Jokin Mujikak, Egin-eko Indurainen gehigarrian.

Panderoa

"Lanera natorrenean ez, baina edozein festa, edozein oporraldi, edozein lekutara goazenean... Normalean jendeak argazki kamera eramaten badu, nik oraintxe arte ez neukan hori eta beharrik ere ez nuen sentitzen. Orain, panderoa beti. Eta noranahi. (...) Marokkon izan eta tam-tama panderoarekin konbinatzea marokkoarren artean, hori zoragarria da".

Joxepa Madariagak, Egunkaria, 95-VII-6an.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali

Ukraniarrak, agur!

Bai ederki egon ginela ekainaren 29an, arratsean, Lazkaoko plazan, ukrainar dantzak ikusi eta kantuak entzuten...

Gure herriko plazan, astegun gorrian, ez si eta ez no, eserleku eta guzti, soinu onarekin... xentimorik ordaindu gabe, kultur ekintza bat izan zen guretzat! Foru Diputazioa bitarteko, herriz herri eta emanaldiz emanaldi ibili omen da talde hori. Bejondeizuela!

Zergatik ez dira, ordea, horrelako zirkuituak prestatzen bertako artistekin ere? Uztaila eta iraila kultur ekinak kalera ateratzeko hilabete oso aproposak direla eta kalitatezko ekintza txukunak jendeari "muturren aurrean" jarzakeak zaletuak sor ditzakeela uste dut.

Kanpotarrak bezala bertakoak ere horrelaxe lanean jarri gero, kultur mailako heziketa bideratuko genuke, denok aborastuz.

Bukatzeko, zorionak dantzari, kantari eta musikari ukrainarroi!

J.M. (Lazkao)

Agur t' erdi lagunak:

Tolosaldeko autobusen ordutegiak eskaini dizkigute gaur. Alderdi hortako herri guztiak omen dute orain zerbitzu egoki bat. Pozgarria benetan! Beste horrenbeste noiz Goierrin! Gure herrialdeko biztanleek ere poztuko lirake autobus zerbitzu on batekin. Lortuko ote dugu? Ekologista izeneko ugari daude gure artean, baina automobila dute eguneroko laguna. Lehenbailehen automobilak baztertu eta autobus zerbitzuak behar ditugu fin, herriarren zerbitzura. Berandu gabe mesedez!

Herriatarrak

Kaixo goierritar lagunak:

Beasaingo mutil-nesken talde bat gara, euskararen aldetik ikastaro batzuk egiten ari gara AEKn. Ikastaro hauetan irteerak, pelikulak ikusi, jokuak eta beste jendearekin harremanetan jartzeko aukera izaten dugu, hori bai beti euskara gure laguntzaile bezala erabiliz. Gustatuko litzazuke zuen aldizkaria irakurtzen duen jendeak guk bezala euskararen alde zerbaitegitea. Zuek gu gehiago ezagutu ahal

izateko guri buruz zerbaite gehiago kontatuko dizuegu: gu Goiztiri-AEKra etorri ginen euskararen aldeko gauzak egitea gustatzen zitzaigulako eta gure euskal mintzamina indartzeko eta hobetzeko. Benetan esaten dizuegu ikastaro hauek egitea oso interesgarria dela eta gainera oso giro ona dagoela. Anima zaitez zu ere horrelako ikastaro motatan parte hartzen!

Bertsotzat idazten dizuegu:

Euskal Herria da gure aberria,
euskara berriz da gure familia,
gure barnean daramagun odola,
euskalduna da,
odola hori edukitzea ematen digun aukera,
ez dugu alde egiten utzi behar,
euskara denez ere gure arima,
defendatu dezagun gogorki gure altxorrik
preziazatuen.

Agur bat.

Beasaingo Murumendiko ikasle talde bat

Ertzainak argazkilari

Uztailaren 10a da. Arratsaldeko 8ak eta minutu gutxi dira. Azkenaldian astelehenero bezala bi kontzentrazio deialdi daude Beasainen. Gesto Por La Paz-ek deitua udaletxe aurrean eta Herri Batasuna eta Amnistiaren Aldeko Komiteek deitua Zubimuzu Plazan.

Hau horrela denetik ez da inolako lis-
kar edo istilurik sortu. Talde bakoitzak
bere protestaldia egin du eta kitto!

Gaur ertzaintzaren furgoneta bat etorri eta Ñañarri tabernaren ondoan geratu ondoren Zubimuzu plazan bilduta gauden pertsonen argazkiak ateratzen hasi dira. Jendea oihuka hasi da hori gaitzesteko eta orduan plazara igo dira eta han goitik jarraitu dute argazkiak ateratzen.

Zergatik hori? Ertzaintza, zergatik sartzen da pake-pakean dagoen jendearekin? Zer dela eta jendea erretratatu behar hori? Ez al duzue hau herri demokratiko bat dela esaten? Beraz, herriarrok (batzuk noski) ezin al dugu ezer aldarrikatu kontrolatuak eta zelatatuak izan gabe? Non dago adierazpen askatasuna? Non azkenaldi honetan hainbeste aldarrikatzen duzuen tolerantzia?

J.A. M. (Beasain)

Inazio Agirre: zenbat halako!

Aurreko GOIERRITARRAn Inazio Agirre apaizari eginiko elkarrizketa irakurtzeko parada izan dut. Ondorengo lerroetan Inazio Agirrek aieraturiko ideiaz arituko naiz, eta ez Inazio Agirretaz, erne! "Gizakia kalamidade hutsa da eta ez da gai bere bizitza aurrera eramateko, sinets dezagun handiagoko zerbaitean: *morrontza*". Eta nik: "Ai gizakia gizakia balitz!". Komediak dira gero hemen! Zerbait izan behar horrek ematen dizkigun lanak! Beti ere, nola edo hala, besteengandik nola bereiztu, nola diferentziatu, gizarajoak eta gajoak gu! Hain al da zaila norbera izatea, hots, norberaren kontuak, besterik gabe, adieaztea? Nork ez du hemen arnasa hartzen, jaten, kaka egiten...? Nork ez? Antza, zenbaitzuk ez, ugariak alajainetan! Entzungo dituzu "Hori berezia da", "Horrek aparteko bizitza darama", "hori bai alaba, semea edota dena delakoa"... Beti ere, inolako aparteko merituak aipamen.

Hau harria erori zaiguna! Hemen, atzo, gaur eta bihar, bizitza baino ez da aipamen, hau da, norbera den moduan azaltzea; dena eta ez itxura hutsa. Hala doaz kontuak. Aparteko horiek, egiten duten gauza bakarra aparteko saltsa jartzea baino ez da. Utikan horien apartekotasun guztiak! Kontraesanetik kontraesanera, besterik ezin eta. Hori tira. Baina okerre-na zera da, alegia, bakarrik --bakardadea lagun-- ezin ba ibili eta hor ibiliko dira hau eta bestea konbentzitzen eta errebo-
tez zatiketa handik eta sesioa hemendik, eta dena batasuna eta elkartasunaren ize-
nean, horrats!

Baita urrunago jo ere, inoren irudime-
na eta ametsak ukaraziz, jende ukatua,
ahula sortu. Horregatik, gero, errealita-
teari aurre egiteko gauza ez eta, artalde-
tuz, "jaun-andere pottoloen" eskuetan
jartzen dira, bere buruaz beste egiten du-
tela, bestela esanda. Eta esango didazue
zuek ze aterramendu datorren bide horre-
tatik: *sufrimendu latza*. Alde ederra, bai,
aldizkari berean, Ane Olanoren hurbil-
tasuna, freskotasuna eta sintzeritate.
Edota Rufinoren "Baina zer da hau? Ez
ote daukat nik pentsatzen dudana esaterik
(...)" Ez nuke egon nahi desioak kiska-
liriko larru-infernu barru horietan, ezta...
zeru onena eskainita ere. Ze horrela erre-
primitzen denak, ze zeru klase opa dezake
ba? Ez etsi. Eutsi goiari!

Pello Sarriegi (Barrika)

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia:	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:.....	094
Errepideen egoera:.....	288888
Ertzaintza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	429742
HIES-SIDAr buruzko Inf.:	282666
Alkoholiko Anonimoak:.....	276618
Goierri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



Imanol Gaztañagak emana

**Zubibi jatetxea
Ordizia**

ITSASKABRA PASTELA

Osagaiak: 800 gr. itsaskab-
bra (garbitua), 400 gr. ganba
fresko (garbituak), 8 au-
rraultza oso, 8 gorringo, litro
erdi tomate, litro laurden es-
negain likido, gatz.

Ontzi batean itsaskabra
eta ganbak, arraultza osoak,
gorringoak, esnegaina eta

gatz piska bat bota. Guztia
batidora haundi batekin on-
do nahastu eta "baño- ma-
rian" jarri labean 40 minu-
tuz. Hoztu ondoren ontzitik
atera eta gainean saltsa-
arrosa bota. Saltsa-arrosa
maionesa eta kechup-arekin
egiten da. On egin dizuela!

Bota bertsoa



**Jon Aiestaran
Gaia: turismoa in-
darrean
Doinua: "Aita izena
kanta beharrak"**

Bidaiazteko nik maite dud
joera nahi dut azaldu:
erloju gabe etxetik irten
ta mendi tartean galdu
egun hauetan lanari ez diot
nahi askatasun hau saldu
ehun izarreko hotelean lo
ta su ondoan afaldu
nire barruak naturarekin
harreman hori behar du.

Norbaitek zion probatu ez dunak
ez dakila zer den hori
nahiz eta entzun bizitu duten
hoien hamaika histori
gehientsuenak hegazkinean
tripa ta sakela lori
turista hauen jokabidean
nik ez nuke nahi erori
kontuak kontu luzeegia
egite al zaigu inori?



MUJIKA



BEASAIN

☎ 88 74 00

KUKO

Jatetxea

Kuko, gure txef-ak
zure sabelak esker-
tuko duen menua
eskeintzen dizu:

Astelehenetik osti-
ralera menu bereziak.

Eguerdietan 2.000
pzta. + BEZA

Toki mugatua dago,
eskaerak aurrez egin.
On egin diezazula!

Berjaldegi plaza z/g
tfnoa.: 88 28 93
ORMAIZTEGI

UNTXUNDEI Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

Debaldeko iragarkiak

Lana

□17 urteko neska bat prest dago udan umeak zaintzeko. 80 6098 (Maiden).

□Gazte batek zenbait lan egingo lituzke: soldadore, eraikuntzako pioi, nekazaritzan... Trailer eta autobus karneta ere badu. 88 67 32. Alberto.

Etxebizitzak

□3 lagun behar ditugu Bilbon pisua osatzeko (Deustuko Unibertsitate ondoan). 882938 (Egoitz).

□Urretxun kanpokaldera ematen duen etxe bat dago salgai, egoera onean eta amueblatua. Dei iluntzeko 8etatik aurrera, 72 22 03 telefonora.

□Altzagako Udaletxean etxebizitza bat alokatzen da. Interesatuak arrendamendu horri buruzko informazioa jaso ahal izango dute Altzagako Udaletxean edo 881170-883737 telefonotatik. Eskerak egiteko azken egun abuztuaren 1a da.

□Ganbara bat salgai Tolosako alde zaharrean. Berritzeko. 42 05 36.

ANTZERKIA

✓ Beasain:

Uztailak 21, Markeliñe taldeak "Armagedon" lana aurkeztuko du San Martin Plazan, 22:30ean.

Uztailak 23, Katakarak Trup taldearekin kafe-antzerkia Loinatz Tabernan, 22:30ean.

✓ Ordizia:

Uztailak 21, Ordizia Taldeak Oskar Wilderen 'La importancia de llamarse Ernesto' lana aurkeztuko du Herri Antzokian, 20:15ean.

MUSIKA

✓ Ordizia:

Uztailak 24, rock maratona talde berriekin, Trevijano zelaian, 18:00etatik 23:00etara, Rugby Elkarteak antolatutik.

Uztailak 26, Irungo Udal Musika Banda Plaza Nagusian, 13:00etan.

Uztailak 26, Dixiekleta

Jazz Band Taldearen kontzertua, Plaza Nagusian, 19:00etan.

ZINEA

✓ Ordizia:

Uztailak 22, 'Semillas de rencor', 7:30 - 10:15.

Uztailak 23, 'Salvad a Willy', 4:45 (dohainik); 'Semillas de rencor', 7:30-10:15.

IKUSENTZUNEZKOAK

✓ Lazkao:

Abuztuak 22, Javier Juanesen diapositiba emanaldia, Maizpideko Zinema Aretoa, 21:00etan. Gaia: "Estropadan".

BERTSOAK

✓ Itsasondo:

Abuztuak 14, X. Zeberio, I. Lazkano eta X. Amuriza, 11:00etan Beheko Plazan.

✓ Ordizia:

Uztailak 24, bertso-afaria Gaztetxean 21:00etan.

✓ Zegama:

Abuztuak 25, M. Telleria, S. Lizaso eta A. M. Peñarikaren bertso saioa herriko plazan 13:00etan.

ERAKUSKETAK

✓ Beasain

Uztailaren 2tik abuztuaren 11arte, Mamen Garciaeren erakusketa Aterpe Tabernan.

MENDI IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Irailak 3, Beasain-mendiko jaiak.

Idiazabalgo mendizaleak:

Uztailak 29-30-31, Pina-Monte Perdido-Añislo.



ITSASONDOKO UDALA
(GIPUZKOA)


LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



ondoeta



Santa Ana jai
zoriotsuak denoi

HALTZAIRUZKO ATEAK:

AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g. Telef. 883102. Faxe: 880872. 20249

ITSASONDO

BESTELAKOAK
✓ Lazkao:

Abuztuak 8, Koldo Ameztoren ipuin kontaketa, Maizpideko Zinema Aretoa, 21:00etan.

GOARDIAKO BOTIKAK

Uztailak 21: Arriola; **22-23-24:** Urbizu; **25:** Atorrasagasti; **26:** Azpilikueta; **27:** Jauregi; **28:** Laurnaga; **29-30:** Arriola; **31:** Cuesta.

Abuztuak 1: Arriola; **2:** Urbizu; **3:** Atorrasagasti; **4-5-6:** Azpilikueta; **7:** Jauregi; **8:** Laurnaga; **9:** Cuesta; **10:** Arriola; **11:** Urbizu; **12-13-14:** Atorrasagasti; **15:** Azpilikueta; **16:** Jauregi; **17:** Laurnaga; **18-19-20:** Cuesta; **21:** Arriola; **22:** Urbizu; **23:** Atorrasagasti; **24:** Azpilikueta; **25-26-27:** Jauregi; **28:** Laurnaga; **29:** Cuesta; **30:** Arriola; **31:** Urbizu.

Irailak 1: Atorrasagasti; **2-3:** Urbizu; **4:** Azpilikueta; **5:** Jauregi; **6:** Laurnaga; **7:** Cuesta.

▢BALIOGUTXITUEI NORBANAKO LAGUNTZAK.

Minusbalidoak dituzten pertsonentzat laguntza teknikoak eta bestelako prestazio indibidualak eskatzeko epea irekita dago Beasainen. Minusbaliatuaren legezko izaera duten eta, eskaera-datatik hasita bi urteko gutxienezko alde aurrez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erroladatuta dauden pertsonak edukiko dute Laguntza-plan honen onuradun izateko aukera. Laguntza-motak berriz, asistentzia espezializatua (erakundeen tratamendua), laguntza teknikoak (mugikortasunerako, moldaera pertsonalerako eta entzumenerako protesiak) eta aparteko laguntzak. Laguntza hauen eskaerak Gizarte-Laguntzailearen bulegoan aurkeztuko dira, eta aurretik 88 59 04 telefonora deitu beharko da, eguna eta ordua jartzeko. Eskaerak aurketeko epea abuztuaren 3an bukatuko da.


Hurrengo azoka astelehenez

Ordiziako jaiak gainean ditugula ederki antzeman zen azkenengo azokan. Arrain eta arkumeetan prezioek gora egin zuten. 35 arkume saldu ziren, 650-700ean. **Arrainetan** berriz, hona hemen prezioak: legatza 1.720, itsas-oi-larra 1.150, mihi-arraina 1.730, txitxarroa 840, hegaluzea 1.420 eta antxoak 790.

Bertako barazki eta fruituei dagokienez, pepinoa (35-50) eta baratza tomatoa (100-200) izan ziren nobedade. Gainontzean, aranak 15-200ean saldu ziren, igitai leka 225-250ean, ilarrak 300-400ean eta patata 60-80an.

Kanpokoetan berriz, al-berritxikuak bukatu dira. Beste batzuk hor dabilta gora eta behera: gereziak 450-600,

klaudia aranak 300-350, meloia 85-150, sandia 50-60, melekotoi horia 175-300, udarea 125-250, paraguaioa 250-300, patata 50-70 eta lekak 250.

Perretxikuak aurreko astean baino gutxiago izan baziren ere, izan zen non eta zer eresia. Onddoak (bertakoak kilo bat eskas eta Galiziakoak 40 kilo) 2.500ean saldu ziren; ziza horiak (bertakoak kilo bat inguru eta Galiziakoak 15) 2.000 pezetan; arraultza gorringo ale batzuk ere ikus zitezkeen eta 3.000n saldu ziren. Udaberriko zizarik eta gibelurdinik ez zen azaldu.

Azkenik gogoratu, Ordiziako jaiak direla eta, hurrengo azoka astelehenez egingo dela.

Ana Irastorza



ARANDIA
Garajea
AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
Tfnoa: 88 09 47

Iurre auzoa
OLABERRIA

BASERRIA SALGAI ZUMARRAGAN

ura, argia, bista ederrak
eta bide ona ditu
Tfnoa.: 45 43 70

GANBARA

estudio juvenil

Gazte altzarietan adituak

Urdaneta, 56

ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 88 71 21



ORDIZIAKO UDALA

Ordiziar guztiei eta egun horietan bisitan datozkigunei eta hainbat arazo direla eta gurekin egoterik ez dutenei festa alai eta zoriontsuak opa dizkiet.

Alkateak



Giro jator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN



Pintxoak
Ogitartekoak
Bazkariak
Afariak

880035

ORDIZIA

KOIOTE TABERNA

**Zaldizurreta
BEASAIN
Etxezareta k.
ORDIZIA**



ORDIZIAKO GARAGARZA PLAZAN

Eraikuntza berria: apartamentu, etxebizitza
eta terraza handidun atikoekin
Lokal komertzial eta garajeak
1. kalitateko eraikuntzak

PROMOTOREA:

GOI-ETXE S.A.

Filipinas, 13 - behea

☎ 88 49 50

ORDIZIA



**GENERALI
Aseguroak**

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

Sute, tximista, leherketa, urak sortutako kalte edo kristalen hausketen oinarritzko estaldurak, honako hauetara hedatzen dira:

- Kontinentearen berriztatze estetikoa
- Lapurreta, ondasun bereziak, bitxiak eta eskudirua barne
- Etxetik kanpoko lapurreta
- Erantzukizun zibil zabala
- Etxean, 24 orduko asistentzia

**Ikus zure etxea aseguratzeko ze merkea den
Egunean 27 pezetatik hasita**

Kontinentea	5.000.000	7.000.000	9.000.000
Edukia	2.500.000	3.000.000	4.000.000
Prezioa	9.902	12.787	16.748

Jainkoen haserrea

Aljerian hamarnaka neska eta andre hil dituzte azkenaldion Jainkoaren izenean. Palestinan izuturik omen daude emakumeak. Izan ere, Inifada garaian egoeraren eraginez lortutako hainbat eskubide --"giza" eta "ema" eskubideak ez baitatoz beti bat-- galtzorian ikusten dituzte orain, Israelekin paketze bidean jarri direla eta. Jainkoa, ageri denez, horren atzean ere.

Hurbilxeago, Erromako Eliza Katoliko eta Apostolikoak hierarkikorako sarrera guztiak ixten dizkigu Adanen saihetseko "Evakumeoi". Ez izan bide gara zeregin horietarako sortu eta gaituak. Areago, andrazkoon sexualitatea ukatzea dela ematen du Eliza Katoliko ofizialaren doktrinaren mamia --Al Kairoko Konferentzian erakutsitako eta Pekingorako iragarritako jarrera horren adibide--.

Bi horiei ezezik, misojinia nabarmena suma dakieke gainerako erlijio gehientsuenei ere, adierazpide ofizialetan behintzat. Jainkoen haserrean jomuga gara nonbait emakumeak. Ikusiak ikusita, non arinduko ditugu izaki lizun eta inperfektuok geuron zalantza existentzialak? Ah! Baina ba ote gara kezka horiek izateko gara?

Idurre Eskisabel Larrañaga

Udan zer egingo duzu?



Joseba Usabiaga
11 urte, ikaslea
ordiziarra

Ettxarri-Larraulgo udalekuetara joan naiz, gero Ordiziako jaiak hemen pasatuko ditut eta jaiak bukatu ondoren oporretara joango naiz. Ikastolako lanak ere egin beharra dauzkat.



Xabi Romero
12 urte, ikaslea
ordiziarra

Ettxerako lanak egin beharra dauzkat. Baina goizetan kalean jolasten ibiltzen naiz eta arratsaldean igerilekuan edo txirrinduz ibiltzen naiz. Herriko jaiak hemen pasatzea eta ondoren oporretara joango naiz familiarekin.



Amaia Apaolaza
14 urte, ikaslea
ordiziarra

Ikasi, dantza entseietara joan, arpa jo, mendira joan, bizikletaz ibili... Ez zait hondartza eta igerilekurik gustatzen. Gales eta Bretoniara joango naiz dantza egitera.



A ze flaxa!



Berriak labur

Ba la dakizu?

Oraingo honetan gurea dakarkigu, guk ere egiten bait ditugu flaxak. Bala bat bezala ibiltzen gara azkenengo momentuan, eta honelakoak gertatzen dira, GOIERRITARAREN azken alea lekuko.



GARDEN GANBO

UZTAILA

- Hilabete honetan Holandako merkealdiak barruko landareetan
- 1.500 pezetako erosketagatik landare bat opari
- Dekoraziorako lore lehor, tela eta artifizialezko zentroetan eskaintza zabala

OLABERRIKO MERKATAL UNEA ☎ 88 22 55

Ba al dakizu?

GOIERRITARRAK

KULTUR ELKARTEAK urteko batzar orokorra egin zuen hilaren 8an. Besteak beste, junta berritu zen eta Jon Mikel Arano orain arteko lehendakariaren lekua Dionisio Amundarainek hartu du. Lehendakariordea Loinaz Agirre izango da; idazkaria Andoni Sarriegi eta diruzaina Josune Agirre.

SELEKTIBITATEA

egin behar izan zuten ekainean, UBI bukatu eta unibertsitaterako bidea hartu nahi dutenek. Goierritar gazteak oso fin ibili dira. Guztira 258 ikasle aurkeztu dira, eta onartatu 255ek egin dute. Ikastetxez ikastetxe hona hemen datuak: Beasaingo Txindoki Institutuan 73 aurkeztu eta guztiek gaititu dute; Alkartasuna Lizeoan UBI % 75ak onartatu dute, eta selektibitate aurkeztutako 60 lagunetatik 58k gaititu dute. Ordiziako Oianguren Institutuan, 37ek egin eta denek onartatu dute; Jakintzan beste horrenbeste: 23tik 23; eta Goierriin, 38 aurkeztu eta 37k onartatu. Lazkao azkenik, selektibitatea egingo dako 27ek onartatu dute.

INTSUMISO BEASAIN-

DARRAK. Aurreko alean Jon Olano intsumisioa atxilotu zutela esan genuen,

eta atxiloketa horri beste arriarandar batena gehitu behar zaio. Aitor Mendizabal gaztea, lantokian detenitu zuten, intsumisio izateagatik. Atxiloketa hauen aurrean Goierriko Objektore Taldeak mozioa aurkeztu zuen Beasaingo Udalean (ikus Beasaingo kronika). Ordizian bitartean, bi intsumisio (Kike eta Pako) epaitu dituzte aste honetan Palentzia eta Donostian.

AUZOLANDEGIA BEASAINEN.

Estatuko puntu ezberdinetako 19 eta 23 urte bitarteko 19 gazte daude Beasaingo auzolandegian. Bi dira hain zuzen ere auzolandegi honen eginbeharrak edo helburuak: batetik Hirugarren Munduarekiko lankidetzeta eta elkartasuna adieraztea, eta bestetik Igartzako errota eta Belengo ermita eraberritzea. 'Umorea eta Hirugarren Mundua' gaia hartuta egindako erakusketa izan da Zubimuzu plazan, herrian bildutako materialarekin egindako azokaxoa (bildutako dirua eta materialea Uruaguayera bidaltzeko asmoa dute) izan dira besteak beste egin dituzten ekintzak. Aisialdiarako eta ondo pasatzeko aukera ere izan dute. Dena ez da lana izan.

LAZKAO TXIKI

ren eskultura babesteko asmotan, itxitura



Lazko Txikiren eskultura ez dugu gehiago "lurrean utzita" ikusiko. Orain badu bere leku egokia Joxe Migelek.

egin diote inguruan. Eskultura belarrez estalitako altxagarri baten gainean jarri da, harrizko itxitura batez inguratuta. Bi eserleku ere jarri dira inguruan. Honen batera, bere kokagunea pixka bat aldatu egin da, Gernikako Arbolaren kimua zegoen tokian jarri baitute, eta kimua berriz, lehen iturria zegoen lekuan.



ETXE-ZVRi
SAGAROTEGIA

- Bataio, jaunartze, lagunarteko eta negozio bazkariak
- 2.000 pztako menu bereziak
- Karta

Sagardoa urte guzian txiritik
Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 88 20 49

OLABERRIA

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa . Iriarte Erdikoa . Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 - 88 99 00
Fax: 943 - 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- **IBILBIDEAK:** Museoan eta Goierriin barrena.
- **LANTEGIA:** Jolasean ikasteko ariketak.
- **ZUMAKIT MALETAK:** Mailegua dohain.
I "Jazkien Baula"
I "Euskal komunikabide eta garraioak 1788/1865"
I "XIX. mendea, bi munduen arteko zubia"
- **ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA:** XIX. mendeko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- **ARGITALPENAK:** Aldizkari, foileto, katalogo, bideoak...
- **IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK...**

BISITA ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.

Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.

SARRERA DOHAINIK

12.175.000 SAN FERMIN SARIAN. Horixe izan da Ordiziako Eguzki tabernan azken urteotan egiten den zozketan bildutako dirutza. 87.000 bat zenbaki saldu omen dira eta guztira 317 sari banatu dira. Gainontzeko dirua, San Jose Zaharren Egoitzarako izango da.

AITOR GARMENDIA Itsasondoko txirrindularia, Once taldeak fitxatu nahi duela jakin da. Manolo Saizen taldeak bi denboralditarako kontratua eskaini dio. Garmendiak aurtan bukatzen du Banestorekin duen kontratua.



ESTATUKO ESKALADA TXAPELKETAN Josune Bereziartu beasaindarrak ezin izan zuen txapela jantzi. Bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen. Gizonezkoetan, Rikardo Otegi ordiziarra be-



Beasaingo AEKn euskara ikasten ari diren Murumendi ikastetxeko gaztetxoak GOIERRITARRAn izan genituen hilaren 6an. Gure lanaren berri eman, euren galderak erantzun eta lanerako prest agertu ziren gaztetxoak. Guk baita jarri ere: bakoitzaren helbideak azaltzen diren pegatinak jartzen jarri baikenituen. Eskerrik asko, eta segi aurrera! (Beraien berri gehiago, 'Eskutitzak' sailean dagoen eskutitzean duzue).

rriz, 6.a izan zen.

'ORDIZIAKO TXIRRINDULARI PROBA' ETB-k eskainiko du hilaren 25ean. Goizeko 11.30-etatik aurrera eskainiko du klasika zahararen edizio hau.

TXIKI TXAPELDUN. Ordiziako lagunarteko futbol txapelketan Txiki taldea da aurtengo txapeldun, Haydaos Tximistari 3-1 irabazi

ondoren. Txikiko atezaina (Cavero) bera izan da gainera, golik gutxien jaso duen atezaina. Hiru eta laugarren postuak erabakitzekeo partiduak ere jokatu ziren, eta Loretos Orlegik 1-0 irabazi zion Laket taldeari.

GOIERRITARRAK OPORRAK hartuko ditu abuztuan. Hurrengo alea irailaren 8an kaleratuko da. Lanera berriz abuztuaren 23an itzuliko gara. Ordurarte ondo pasa!

IKASTEK AKADEMIA

Uztailan eta abuztuan

UDA IKASTAROAK

- maila eta arlo guztiak
- laguntza pertsonalizatuak
- irakasle trebetua
- kalitate eta profesionaltasuna

Informazioa 3etatik 8etara

☎ 16 01 20

Joan Iturralde, 5

BEASAIN




- Iturgintza
- Berogintza

Mendi-Ondo etxea
Tfona: 88 40 57
ZALDIBIA

Esteban Lasa, 7
Tfona: 88 80 29
BEASAIN

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



GOINDEGA GARONA

K. Nagusia, 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58 ☎ 88 72 79 ☎ 16 00 44
BEASAIN LAZKAO ORDIZIA

ORDIZIAKO "HITZARO" ELKARTEAK URTEA BETE ETA HASI BESTERIK EZ

Joxe Glez. Katarain: "Villafranca erdalduna ahaztu nahi nuke"

Ordiziako "Hitzaro" Euskara Elkarteak sortu eta legalizatu zela urtea bete da. Euskararen erabileraren normalizazio premiazkoa eta euskal kulturaren indartzea ditu helburu. Bere buru den Jose Luis Gonzalez Katarainekin egon gara horren martxa zeuenganatzeko.

Jose Luis politika munduan ere sar-tua ibilia da (zinegotzi-ohia Ordizian-eta), euskaldunberria dugu eta asko ho-betu du azken urteotan bere euskara maila. Bere bikotearekin bi ume ditu eta horrek ere eragina izango zuen. Orain-dik entzuten den "Villafranca"-ren izen eta izan erdalduna ahaztu nahi li-tuzke: "urteak eta urteak behar dira, horrek erakusten du gauzak eta pentsa-molde batzuk aldatzea asko kostatzen dela". Gazteagotan utopikoagoa bazen ere, orain errealistagoa izatea tokatu zaio. Ideal batzuk ez ditu galdu, halere: euskaltzaletasuna esate baterako.

Batu beharra erditzeko

"Hitzaro" k bere bizitzako 1. urtea bete badu ere, aurretik prestakizun ugari behar izan zituen: estatutuak eta bat-zorde-arduradunak prestatu, mota guztietako harremanak, "kolore politi-ko guztietako jendeak bait du hemen kabida", eta jendea biltzen saiatzea,



"gaurko egunean ez bait da oso lan samurra hori; ez dakit jendea oso eroso ohiturik dagoen ala zer, baina kosta-tzen zaio biltzea mogida hauetara", aurreratzen digu.

Euskara taldekoek abiapuntutzat hartu zuten gure hizkuntza ez dagoela egoera normalizatuan, ez E.H.-an ez Ordizian, "eta nahiz eta 14 urte arteko gaztetxoak euskaldun izan, giroa ez de-la aldekoa, ez dela isladatzen kalean, umeek ikastolan euskaraz ikasten du-tela baina kaleko giroa erdaraz ikusten dutela. Eta nola umeei ez zaizen ajola askorik zer esaten duzun, baizik eta zer egiten duzun, bada esan diezaiekezu nahi duzuna, baina erdaraz somatzen bazaitue, zuk egiten duzuna egingo du-te".

Ordiziako euskararen egoera horre-lakoa da, "herrena, batez ere kaleko

giroan nabaritzen da eta egin diren az-terketetan, orokorki esanda, nik uste dut egia hori isladatzen dela". Uste baino jende gehiagok daki euskara ber-tan, baina hori ez da aditzera ematen. Hori barruntatu zen "Kilometroak 93"aren inguruan. "Hitzaro" sortzeko ideia, hain zuzen, "Kilometroak"en antolatzaileetako batzuei okurritu zi-tzairen: Juanita Amundarain, Aitor Asurmendi, Andoni Eskisabel, Mikel Oiartzabal, Joxe Mari Barandiaran, Mikel Leunda, Karlos Mintegi...

Hiru lan talde

Martxan jarri zen behinepein eta helbu-ruak argi dituztela lehen pausoak ema-ten aritu dira. Elkarteak ia 100 bazkide ditu, "eta gauza gehiegi ez badugu egin ere, zerbait bai, ez gara geldirik egon

- Aurpegi eta gorputzeko tra-tamendu guztien eskaintza

- Kiromaisaia: kirol eta terau-petikoak

- Mikropigmentazioa: bekain eta ezpainen makilaje iraun-korra

- Kontsulta medikua: gizentasu-na, barizeak, liposukzioa eta zi-rujia estetika trataera guztiak

JOSUNE

ESTETIKA ZENTRUA



Eguerditan ere zabalik
J. M. Barandiaran Plaza, 3 - 88 28 88 ORDIZIA

behintzat. Elkartea sendotzera jo dugu, elkarteko kideak biltzeko lokal bat badugu dagoeneko (Altamirako eskola zaharrean, Udalak utzia), anagrama bat eta markatutako helburu genituen 3 lan talde martxan jarri ditugu: Normalizazioa, Kultura eta Barne-antolaketa. Orain, berriz, apustu berri bati ekin eta 96erako plangintza bat egin nahi dugu", dio Jose Luisek balorazio orokor bezala.

Hiru taldeak ere hamabostero biltzen dira eta bakoitzaren zeregin eta landu beharrekoak segidan datoz. **Normalizazioa:** motibazioa, hitzarmenak (egunon batean sinatuko dituztenak herriko elkarte gehienekin), bazkide gehiago egitea, "uste dugu hirukoiztu litekeela bazkide kopurua, oraindik ez dela isladatzen Ordizia hor, kopuru horrekin puskatu behar dugu. 300ekin beste indar bat edukiko genuke gainera, bai laguntzak eskatzerakoan instituzioen aurrean, bai eta herriaren aurrean".

Kalean eta ekitaldi guztietan euskararen presentzia ziurtatu nahi da, bestalde: "Oso penagarria da iazkoa, Ordiziako Plazan pailaso batzuk erdaraz kiski-kaska aritzea eta umeek ezer ez ulertzea". Merkataritzari dagokionez, Udalak eta "Siadeco"k azterketa bat egin zuten eta oraindik asko egin liteke alor horretan. Beste azterketa bat "Euskara eta gazteak Ordizian"-i dagokion izan da. Aipatu, "Milagrosa", "Oian-guren B.I.", "Jakintza", "Goierrri L.E."

eta "Urdaneta" eskolek hartu dutela parte, jarrera on batekin. Pozik egin dute lan hori "Hitzaro"koek. "Ordiziako Mendizaleak" ekin batera lankidetzan aritu dira eta "Santa Ana" urtekariaren publizitatea euskaraz egiteko ahalegina egin dute.

Kultura sailean, GOIERRITARRAekin lankidetzan eta lotura finkoagoak lortzea da asmo bat; irakaskuntzan, eskolaz kanpoko astialdian euskaraz sustatzea, ekintza kulturalak eta gazteen joerak zaintzeko nahiak dituzte. Patxi Goenagak zuzendutako ikastaroa burutu zuten, 73 lagunek parte hartu zutela, ondo beraz.

Barne-antolaketa denboraz "oso ponpoxo" ez badabilta ere, barne-araudi, lokalaren osaketa, harremanak (instituzio eta taldeekin, subentzio eskaerak...), azpiegitura (erdi-liberatu baten beharra): "ez dugu behar liberaturik gure lanak egiteko, dinamizatzeko eta koordinatzeko baizik".

Beste elkarte, alderdi eta abarrekiko harremanez gain, bestelako zenbait ekintza ere burutu dituzte urte honetan: "Santanetan barraketan eta txirrindulari proban euskara sustatzea lortu zen, euskararen aldeko eskaera edo kues-tazioa oso ondo atera zen, sentsibiltate bat badagoela dirudi, eta aurtengo jaietarako ere beste asmo batzuk badi-tugu". Euskal Jaietan hitzaldi eta beste antolatzeaz gain, "Korrika 9"an ere ibili ziren.

Etorkizun itxaropentsua

"Hitzaro"ko kideak harremanetan jarri ziren alderdi politikoekin azken hauteskundeen aurretik, euskararen gaineko zirriborro bat aurkeztu eta beren jarrerak jakiteko. "Horrek nahiko lan emango du, baina euskara normalizatzeko arau batzuk ezarri beharko dira eta posizionatu daitezten bilatu behar da". Adibidez, EAJ ordiziarrek bere programan "Hitzaro"rekin kolaboratzeko asmoak azaldu zituen. "Ea hori nonbaiten isladatzen den orain, ez programan bakarrik, Alkatetza lortu dutela". Beste hemengo alderdiekin ere egon dira: oraingoz, denak aldeko.

Piskanaka-piskanaka, baina aurrera doa gure hizkuntza Ordizian: umez aparte, kontzientziadun helduek egiten dute euskaraz. Etorkizunean Ordiziak euskaraz egingo badu, "Hitzaro"ren erronka elkarteak zabaltzen joatea da. Ordiziar euskaltzaleek badute sikiera topagunerik eta taldeak funtzio publikoak betetzen duenez, laguntza eta baliabide publikoak ere beharrezkoak izango ditu.

Balantzea egiterakoan, gauzak egin egin dituztela, baina egiteke gehiago dagoela uste du ordiziar honek. Ahalgin batzuk egin dira eta horren lekuko orain arte burututako ekintza mordo-ska. Zorionak eta urte asko bete horrela.

Jon Mikel Arano

MUNDUATE Erlojutegia

100urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan

Nagusia, 1
☎ 88 12 72

ORDIZIA

Unanue GOZOGINTZA

Nagusia, 17 ☎ 88 15 51
Santamaria, 10 ☎ 88 11 49
J.M. Barandiaran, 9 ☎ 88 88 36
Obradorea: Filipinas, z/g ☎ 88 12 65

ORDIZIA



Legazpi kalea, 4
Tfona: 880406
ORDIZIA

Santaneroak 1959

36 urte atzera egin eta 1959ko Santa Ana egunean gaude. Urtean ezkontutako bikoteek (bietako bat Ordiziakoa izatea da baldintza), 1509tik datorren ohiturari eutsiko diote. Felisa Otegik, utzi dizkigu argazkiak eta berak gogoratu digu nola ospatu zuten ordiziarrentzat hain garrantzitsua den egun hau. "Meza entzun eta Udaletxera joan ginen, bertan dagoen san-



1.- "Gregorio Armendariz alkatea buru zutela, gizonetako eskutik helduta eta txistularien (Bergaratarrak) laguntzaz Udaletxetik plazara joan ziren. Alkatearen ondoren, aurrekularia (Jose Luis Huesa), segidan beste bi dantzariak eta beste gizonetakoak atera ziren".



2.- "Aurrekulariak eta bi atzekoek aurrekua dantza egin zuten eta ondoren 4 ordiziar gizonetako Udaletxera joan ziren Ordiziako emakumeetan zaharrenaren bila".



3.- "Herriko alabarik zaharrena Maria Eugenia Lekuona zen, berari aurrekua dantzatu zion aurrekulariak eta ondoren soka lehenengoa jarri zen Maria Eugenia".



4.- "Sokako beste bi gizonetako beste bi emakume ekarri zituzten plazara: M^a Dolores Zabala eta M^a Angeles Nazabal. Hauek ere soka jarri eta 4 gizonetako beste emakumeen bila joan ziren Udaletxera. Zapi txuriekin soka osatu genuen".

ORBELA TABERNA

Pintxo bereziak!

☎ 88 28 83
Plaza Nagusia

ORDIZIA

LEIZEA



TABERNA

AMONANE

Nagusia 30

ORDIZIA

Taberna ALDASORO Jatetxea

Festa onak pasa!

Urdaneta, 27

Tfona: 880023 - 881140

ORDIZIA

Lehengoak gogoan



5.- "Guztiek elkarrekin, plazan arin-arina dantzatu genuen (Argazkian Jose Luis Huesa, Maria Eugenia Lekuona, Pedro Lopez eta Felisa Otegi)".



6.- "Ondoren, Bar Madridera (Otegi dagoen lekura) joan eta hamaiketako eman ziguten. Segidan txistulariekin Martinezenera joan ginen eta han ere hamaiketako eman ziguten. Eta handik Barrenako lorategira joan ginen. Bertan dantza egin eta Udaletxera joan ginen berriro".



7.- "Udaletxean alkatea, Guardia Zibila eta Josetxo Sarasola dantza irakaslea zeuden. Alkateari aureskua dantzatu zion aurrekulariak. Hemen ere hamaiketako eman ziguten".



8.- "Azkenik, aurrekulariaren betebeharra zen emakumerik zaharrena, Maria Eugenia Lekuona, etxera eraman eta dantza egitea".

HEGOA TABERNA

Goierri kalea, 12 (atzekaldea)
ORDIZIA

ZORION INSAUSTI

DIETA PERTSONALIZATUAK: argaltzeko,
kolesterola, azido uriko, kirolari, eta abarrentzat.

Kale nagusia, 8
☎ 88 13 37

ORDIZIA

BARANDI



TABERNA

Ampuero, 1 (Geltoki aurrean) Tf.: 16 13 18 ORDIZIA

MERCERIA • LENCERIA

Arantzak

MERTZERIA • MIHISEDENDA

JOXE MIGEL BARANDIARAN ENPARANTZA, 3 - Tel. 88 76 15
ORDIZIA



● Uztailak 21, ostirala:

18:30ean: Jubilatuen egoitzan Irungo Jubilatuen Etxeko antzerki taldearen saioa.

20:15ean: Oskar Wilderen 'La importancia de llamarse Ernesto' lana antzez-tuko du Ordizia taldeak, Herri Antzokian.

23:00etan: Danborradako kantineren aurkezpena eta Erreka seikotearen musika saioa, Beti Alai Pilotalekuan.

● Uztailak 22, larunbata: 'Txikien kuadrila eguna'

12:00etan: Haurren egunaren hasiera adieraziz suziri jaurtiketa. Ordu berean udaletxean aginpidea emango zaie hau-

rren Alkate jaun-andreei. Plaza Nagusian Txikien kuadrila biltzea.

16:00etan: Txirrindulari lasterketa, 2. urteko kadeteentzat.

17:00etan: Pala pilota txapelketaren finalak alebin eta infantil mailakoentzat, Beti Alai Pilotalekuan.

18:00etan: Buruhaundi eta Erraldoiak, Ordiziako txistulariek alaiturik.

19:00etan: Haur animazioa, pottokak, bigantxak, basurdekumeak... Plaza Nagusian.

20:00etan: Beti Argi Bandarekin Txikien kuadrilen kalejira.

22:30ean: Suzko zezena Arboledan.

23:00etan: Haurren mozorro dantzaldi handia, Beti Alai Pilotalekuan.

● Uztailak 23, igandea:

9:00etan: Goizeresia Ordiziako txistulariekin.

10:45ean: Haurren alkate jaun-andreei harrera egingo zaie udaletxean.

11:00etan: Meza. Ondoren Danborrero eta Upeltxo taldeak, Beti Argi Bandaren laguntzaz Ordiziako martxa joko dute.

12:00etan: Haurren ohizko aurrekua Plaza Nagusian.

12:30ean: XI. Ortzadar Argazki Lehiaketaren sari-banaketa Barrenan.

16:45ean: 'Liberad a Willi' filmea Herri Antzokian dohainik.

20:00etan: Haurren danborrada.

● Uztailak 24, astelehena:

12:00etan: Txupinazoa.

12:15ean: Buruhaundi eta Erraldoien Alardea, txistuz eta trikitiaz lagundurik.

16:30ean: Kuadrilen arteko herri kirolak Joxe Miel Barandiaran Plazan.

18:00etan: Buruhaundi eta Erraldoien irteera, Ordiziako txistulariekin batera.

18:00etatik 23:00etara: Rock maratoia talde berriekin, Trevijano zelaian. Sarrera dohainik.

19:00etan: 'Kalejira' txaranga.

21:00etan: Bertso-afaria Gaztetxean.

21:30ean: Danborrada. Ondoren 'Koxkola' txaranga.

23:30ean: Boxeo jaialdi handia.

00:30ean: Ordiziako Gaztetxeako suzko malabaristak, Foruen Pasealekuan.

Oharra: asteroko azoka izango da egun honetan.

● Uztailak 25, asteartea:

7:30ean: Laguntasuna Rondailaren goizeresia.

9:00etan: LXXII. Villafranca Txirrindulari Proba.

13:30ean: Jakintza Dantza Taldearen saioa Plaza Nagusian.

18:00etan: Larruzko pilotaz pala partiduak Beti Alai Pilotalekuan.

19:00etan: Teatro Estable de Navarra-Pinpilinpauaren eskutik kale antzerkia, 'El bailecito' lana, Plaza Nagusian.

21:00etan: Beti Argi bandarekin kalejira.

Amagöia

Diseinu Grafikoa eta Publizitatea

PLA/ DOMINGO UNANUE Z^a 2 TEL 88 10 06
20.240 ORDIZIA (GIPUZKOA)

DISEINU GRAFIKOA
Imagin korporatiboa / kartelak / txartelak
Posterrak / Gonbidaketenak / Anuntziak / Muestrarioak
Folletoak / Katalogoak / Kalendarioak / Portadak
Pegatinak / Postalak / Jabetxeetako kartak....

MARRAZKIAK
Marrazkiak teknika desberdinetan
Marrazki oso bereziak aerografoz eginak

ARGAZKI ERRETOKAJEA
Argazkiak berlitzea eta efektu bereziak

Arkupe
tapizegia

Manuel Zabierio

Tapizeak - Ohe estalkiak - Edredoiak
Mantak - Maindireak - Mahai oihalak
Toailak - Gortinak eta Osagarriak

J. M. Barandiaran Plaza
(Gudarien Etorbidea)
Tel. 88 00 84
20240 ORDIZIA

ORDIZIA BIDEO KLUBA

Domingo Unanue, 1 ☎ 88 79 19
ORDIZIA

OIANGU
TABERNA

Euskalerria z/g
Tfona: 88 30 03

Ordizia

SIGLO XX
TABERNA
JATETXEA

☎ 88 10 96
Elkano, 6

ORDIZIA

Irakurleari:

"Goierritarrak K.E."-ren asmoetan eta ekintzetan beti egon izandu da presente euskal literatura goierritarrenenganatzea. Hori dela eta, GOIERRITARRAK argitara izan ditu beste zenbait eranskin joandako urteetako uda-atarietan.

Oraingo honetan, gure literatura bataila-zelai gisa eta bere burua "Jaunkoia eta Foruak" kausa noblearen aldeko soldadu gisa ikusten zituen Arturo Kanpion nafar euskaltzalearen ipuin bat aukeratu dugu, Goierriko euskaltzaleentzat eduki dezakeen interesagatik.

Julio de Urkijoren liburutegian, Pello Joxe Aranburu erdi-alkizar erdi-lazkaotarrak aurkitu zuen "Contrastes" libu-

ruan (Euskal-Erriaren Alde, Iruñea, 1882) dator. Klaudio Otaegi idazle zegamarrak itzuli zuen orduan bikainkiro eta, irakur-zaila zegoenez, Jon Mikel Aranoren edizioa dugu honakoa, gaurko grafiara, e.a.-etara aldatu eta moldatuta gero.

Bertan Euskal Herria, bere Foru eta ohiturekiko maitasuna agertzen da, naturarekiko sua eta hemengo legeak ez izan eta ezarri nahi diren arrotzekiko antipatia. *"Batzuk nere garaiko gizona ez izateaz salatuko naute eta nere 'probintzialismo estua'-ri parre-txirriak egingo dizkiote. Ez dio ajola; kosmopolitismoa deitzen den errore politiko-sozial hori, beren destinaren jabeak diren aberriek bakarrik permititu lezaketekien lujoa da"*, dio Kanpion handiak sarreran. On dagizuela, urte askotarako eta zuek ikusteko.

Kontraegoerak

Oitura onen eta txarren irudia

"Bizkaian egin dira
Bide lau zabalak
Libre sartu deitezan
Ekandu zitalak.
Orain gagoz egiten
Burdiña bidea
Fueroak igasteko
Segurua atea"

Eusebio M^a Dolores de Azcue

Arratsaldeko bostak, or nonbait Aziraden Billaprancako estaziora (Gipuzkoan) allegatu nintzanean, Miarrizta eramanean bear ninduen tren-korreoa sartutzeko asmoarekin. Nai baña denbora geiago nuen eta zai nengoen bitartean atsegin izan nezan asi nintzan paseatzen burni-bidertzaren luzeeran, oroi-tuaz gozoki igarotako amabost egunak. Ez nituzke trukatu beste amabostekin Victoria Erregiñaren gorte ber-berean.

Denbora labur orren buruan egin izan nuen nik artzaieen baso-bizitza eta librea. Espartintzarrakin eta arizko soiñ ariñarekin jantzita, Sortaldeak larrosa kolorea artu beziñ laster, eta askotan ala ere lenago, juaten nintzan mendira intzez betetako belarrean oñak sartuaz. Nere animaren atsegintasuna etzuen nahasten gizonen errieta batek; onen ordeaz arbola eta aizearen betiko jardutea aditzen nuen. Beethovenen sinfoniak eta Mozarten soñuak palta banituen, oen partez txoriandrak artutzen ninduen txit ongi bere lendarbiziko ots-eztiekin

eta erretxinolak bere azkeneko txorrotxioekin.

Nere enkantu audienetako bat zan begira egotea nola gordetzen ziran geldiro lañoak, zeñak baidira zillarrezko sareak eguzkiaren irteeran eta purpurazko errezel edo gortinak eguzkiaren sarreran. O zer kolorezko pestak ematen zidan egunsentia derizkion egille aundi orrek! Mendiak materiaz trukutzen zirela ziruriten; lendarbiziko argieran ziran autsezko mendiak, gero larrosazkoak, geroago zerutarritzkoak eta azkenean urrezko mendiak. Menditontor batzuek oraindik ere erakusten zuten bitartean zillar berriaren itxura, ibar osoak ikusitzen ziran eskerrak bakarrik laño urdiñen trasparientzia edo goitargierari; ala etzala ez jakitera, usteko zenduten pozkidaz ikustea lurraren izatea itxasoko bagaen trabesetik. Eguzkiak bere suzko darduakin desegiten zituen lurruñ guziak eta gallur nasien artetik zetorren itzal lotiak esnatzera. Zelaiak lorez gorrituak eta zurituak, utzitzen zijoazten lañotxo urreztua, eta agertzen, bata bestearen ondoren, oetik altxatzen diran neskatx-garbi ederrak bezela. Basoko arbolak piztutzen zuten argiberde bat beren orri bakoitzetan eta adar tartetik igarotzen ziran eguzkiaren erreñuak, zeñak errekatxoek kolko preskoan sartzean ausitzen ziran txingar distirietan.

Txoritxoak leuntzen zituzten moakoekin beren lumak eta gero salto egiten zuten adarrez adar pareka,

edo mugigabe asitzen ziran kantatzen alabantzak argiari, arrenkura bat bera berritzen duen seña biguñ, burlatzen dan txistuotsa, poz eroaren otseztia, amorio barrenkoiaren xaramela. Loreen inguruan barrunbatzen zuten erleak, ber-egaldatzen zuten mitxeletak, arribitxizko lora-sorta bizitsuak, ezinkontaala intsektu, islada metalikoak agertzen zituztela beren ego zuriak, urdiñak, berdeak, urrestaliak, oriak, gorriak eta beltzak. O natura, bedeinkatua izan zaitez, millaka aldiz bedeinkatua, gizonen ama pozkidatzalea, ederra eta garbia!

Egazti baten kantua edo erreka-txoren murmurra aditzen, arriturik begira loretxo ezjakiñ baten apainketa basatai edo arranoaren egoera goitituari, zeñak igotzen duen zerura eguzkiaren argiera distiatzallean begiak obetoago gozatzeko, igarotzen nuen goiza, eta ondoren zelaieko serbilleta berdeen gañean eserita, irentsitzen nuen baserritar janaria gogo onez apaindua, eta kendutzen nuen egarria alboan nuen iturriko ur izoztuarekin, zeñaren kristalak autsitzen ziran, gora-bera zebiltzan bitartean. Eta bereala, patriarka bat baña zarrago eta arabiatar bat baña ostatus-emalleago zen aritz adartsu baten oñean bizkarrez azpira etzana, jarritzen nintzan pozkidaz adar tartetik zeru arrigarria ikusten eta kanpo- zelaiai udako eguerdiak erazten dizkien ixiltasuna entzuten.

Dena zegoen lo nere inguruan: bakar bakarrik txindurri nekatsuak bere lanai jarduten ziozkan, eta begi erdirekiakin begiratuaz nola zebiltzan intsektu txikitxo orietako batzuek, nere alkandora zuriaren bularraldera igoak, laster ni ere artutzen ninduen lo beteak.

Arratsaldean berriro ibiltzen nintzan basoan, eta mendien itzalak ibarretan zabaldutuen ziran orduan terziopelozko alfonbra baten gisara, eta izar-errekastoak irtetzen zutenean illunabar urdiñarrea aurreratzen zan bezela, itzulitzen nintzan baserrira, idi, ardi, aunts eta beiakin batean, barrizatuz kantari, ero baten gisa, Virgilioren kopia erdi-aztu batzuek.

Orduan ikusitzen nituen beste eszena batzuek igoalkiro ederrak, intxaur-arbol bete baten sustraiak nituen aulkitzat, eta baso bat esne apartsu edan ondoren, egoten nintzan begira nola ustutzen zituzten bi edo iru gurdi belar ebaki-berri. Etxajaunak gurdira igorik botatzen zituen zamak bere egurrezko sardearekin, eta etxeko-andreak bere alaba birekin bildutuen zituen eta eramane buruan okullura.

Ikusgarria zan zer garboarekin betetzen zuten beren eginbidea neskatx sendoak! Ille txirikordatuak bizkarretik behera, erdirekia kolorezko lepokoa, kolko txit zuriaren asiera erakusten zutelarik, batez ere piska bat eguzkiak urrez tutako aurpegiaren aldean, bekokia izerditsua, begiak alai, ezpail gorriak erdirekiak tximist zillartu baten izarniadura ikusten zitzaiztelarik, atorren maukak ukalondo goitik bilduak, kuadro txeezko perkalezko gona eroriaz ankagorrien gañera toleskai edo pliege arintxoetan, oiñak biluzik eta autseztuak utziz, parre ta kantuen tartean bildutuen zituzten sortak, eta burura jaso baña lenago, sartutzen zituzten besoak belartartean preskatzeko, eta gero, ardatz bat beziñ zuzen pisuren bidez burua makurtu gabe, pausoa ariñ emanaz, arritxingar gañean ere, sartutzen ziran tegiko ate illunetik, zeñak zirurien argiegiten parretxo batez, gazte aiñ doaintsuak sartzean.

Dozenerdi bat ollo ari zitzaizkion mokoka zimaurre pillatuta; Piñto zeritzaion zakur batek, mingaña kanpoan zuela eta gelditu gabe buztan

narekin lurra jotzen, kontuz intxaur-arboletatik tellatura eta emendik aragaatzen zuten etxatxoriai begiratzeko zien; bi neska-mutilltxo urbill denbora berekoak, zurigorriak bi galbururen gisakoak zeramaten arrastaka piper pote uts bat egiten zuen otsak txalo eta parreak eraziaz, eta nere ondoan, alboko sustarrean eseria eun urte urbill zituen aitonak betetzen zuen ieltsozko pipa zuria belarrarekin, eta batean eztulegin eta bestean txistua bota, kontatzen zidan sekula aztu gabeko Etxarri-Aranazen artuerako kondaira "Zumalakarregi aundiaren gaudik".

Belarra bildu ondoren sartutzen giñan denok elkarrekin keez beltza eta prestutasunez distiaria zan sukaldean, zeñaren murruak ez-baizuten sekula ikusi eginbide gordinik, ez ere aren oiartzunak berrituz itz zikiñik, arnegu nakaitzik edo itzera likitsik, aaldun galduen gaztelu izugarriak baña ederragoa bere pareta beztuakin, non etxeko tresnak, erreko arria beziñ garbiak, distiatzen zuten; erretzen zan egurra ausarki eta aditzen zan kirkirra- ren soñu leloa, sukaldeko kontuen baserritar musa.

Gero aitona, etxejauna eta ni eseritzen giñan, ertz urdiñ zabaleko serbilletatzar zuriz estalitako maian, eta etxekoandreak ipiñitzen zuenean lurriña zerion batzurisopa erdian, altxatzen zan nagusia, kendutuen zuen kapelua eta errezatzen zuen Aita gurea zeñari guziok erantzuten giñion egiazko biotz berarekin amen. Apaldutuen genduen bitartean, neskatx biek ekarritzen zituzten pegarra batzuek ur eta geroago, denok elkarrekin juaten giñan otzaroa edo preskura artutzea eta izketan egotea orduerdiren batean diskurrituz, ez Sortaldeko kuestioaren gañean edo Canovasen erortzaren gañean, baizikan ardi batek umea egin zuelako berri aundiren gañean edo Batista, Sagarzurietakoak iskribatu ziola bere amari esanaz, Montevideon tximutxetarañoak iltzen ziralagoseak, eta beste jolasgai berdinegoki batzuen gañean.

Beste batzuetan gizonak mintzatzen giñan gure artean izandu zan azkeneko gerraren gañean eta orduan neskatxak urrutiratzen ziran kana batzuek guregandik eta asi-

tzen ziran kantatzen erdixillik eta bikidan, euskarazko melodi melan- koliko eta biguñen bat. Oraindik ere oroitzen naiz azkeneko aldian aditu nienaz, sentimentala eta ederra beingoan Mendelshonen orrialde bat bezela:

Zu ikustera nijoanean
Zakurrak zaunka egitean
Zenbat alditan botatzen nion
Ixiltzeagatik ogiya.
Nere konsolagarriya!

Eta azkenean oera berriz bizimodu ura bera egiteko bigaramo- nean.

Orra or Billaprankako estazioko burni-bidertzean aronz-onuz nebi- llan bitartean oroitzen nintzan gu- zia. Mikeletetako sarjento bat, bi karabinero armatu eta dozenerdi bat gizon eta emakume ziran bur- nibidertzeko jende-biltzea molda- tzen zutenak. Estaziotik ezker es- kubi zabaltzen dan esiz beste alde- tik zeuden iru neskatx txurimenta egiten errekatxo batean, urean sar- tuak, anka tartean gonak bilduak belauñ gañeraño, aztal zuri lodia- k erakusten zituztelarik. Errekatxoren ezker-ertzean paseatzen zuen apaiz zar, argal eta soñi singlezko batek, kamino errealean, lastozko zapel zabala eta itzalkai edo sonbri- lla zuria zituen jauntxo batekin.

Bat batean soñu egin zuen txistu batek eta agertu zan trena. Izan arren irudiden edo ideen eta sen- tieraren aurreratzea asko alabatzen duen aetako bat eta gutxi aurrera- pen materialena, ez det beñere kendu al-izan dijoan tren bat lauda- tzeke tentazioa. Ala da ere oi ez be- zelako pozkidarekin bota nion nere begia konboiaren etorrerari. Kolore urdiñarrezko ke txit illunak irtetzen zuen galgaraka makinaren tximini- tik nagiro zabalduaz burnibidearen alde bietara; burnizko giganteak botatzen zituen bafada izugarri ba- tzuek eta bere sabeletik irtetzen zi- ran txingarrak millaka eta erortzen ikatz piztuak zatika. Piska bat ge- roago gelditzen zan estazioan tre- na. Denbora berean dunbots ika- ragarri bat aditu zan, deadarrez, txistuz, arneguz, izketaz, kantuz, parrealgaraz, ostikadaz eta esku- joidaz egiña; edozeñek esango zuen Rifleko triburen bat zetorrela tren aren barrenean.

--Zer da ori? galdetu nuen.

--Ceutako tren bat, estazioko bu-
ruak eranzun zidan.

Dena ezagutu nuen, etzetozen mairuak baizikan aen senideak. Madrillek bere jendillajea botakaz-
tzen zuen bere etxetik Gipuzkoara eta botatzen zuen plazer-trenaren itxuran. Au moldatzen zuten amar ordu ibilli ondoren dilijentzi bat arkitzen dan baña zikiñagoko eta autsez beteagoko 2.en eta 3.en klaseko 18 kotxek. Egiazko itxaso bat giza-buru ikusitzen ziran leiotilletatik, eta beste itxaso bat esku bortxa-indarrez siñuka ari ziranak. Aurpegi beltxoak, begi distiari beltzak, kolore bereko illea izerdiarekin kopetari itsatsia, ikatzez beztutako matrallak, azkazalak beltzez erribeteatuak, eraztun lodiz apaindutako beatzak, sedazko lepoko kolore argizkoak, zenbait mantaliña urratu, zimilorrezko eraztun beztuakin estututako leporbilkaiak edo korbatak, papezko abanikoak txilistatxoaz erdies-taliak, ikuserazten zituztelarik or ta emen beatz zikin eta izerditsuen siñaleak, ertz zabalezko zapel urdiñarreak, emakume lodiak ur arrea botatzen poro guzietatik eta iskanbillak eta beroak tontatutako aurrak, begitarte zimurtuak eta bekoskodunak, aurpegi argiak eta lotsagabeak, emakume bigotedunak eta azal ubelduzko gizon bizargabeak, neskatx ederrak eta atso nazkagarriak, eskusaski beteak botella baten lepoa agiri zala, erdiustutako saski izugarriak zaukazkitelarik janaria eta oñetakoak alkar ukitzen, ur- murkoa, zatoak, makill bilgoak, goardasolak eta itzalkiak eta gitarra batzuek; orra or begiratze batean trenean ikusten zana.

Jende pilla ura dana, berez on-
giazigabea eta oituraz zikiña edo gaizkitzegiña, beroakin, jende-me-
taerakin, zurrutakin eta bidajeko berritasunarekin eziñegona, Lega-
nestik iges egiña zirurien. Itz-astu-
nak eta loitasunak egaatzen zuten aoz ao, txaloak eta parrak eraziaz beren moldakaitzkeri eta itsuskisunaren araberan. Guzien tartean begira erazten zuen, eguzkizko begiak eta ortz txikiak eta oso zuriak zituen amazapi urte inguruko neskatilla batek, zeña mintzatzen zan egiazko zorroztasun arrigarriarekin, soldaduen zaitzategi batean beze-
la, ez det sekula ikusi inpernuzko ao politikorik.



Aren ondoan desaotzen zan ollandatzar bat estazioko mutill bati galdetzen non zeuden etxeakoandrentzat komunak. Adierazi ziozkan mutillak eta etxandreak eranzun zuen: --Pues hijo, los podiais poner en la luna; yo no ando siete leguas pa tan poco.

Eta ireki zuen atetxoa, jetsi zan bidera, eta aurpegia kotxeerunz itzulia kukurizkatu zan lurrean aña egoera jakiña artuaz. Orduan, bai esan zirala gauzak! mingaiñ bakoitza oñazpikoan biurtu zan, ao bakoitza likiskerien sumeskan, eta ojuak eta txistuak errebitandu ziran, etxandreak parrealgaraz jarraitu zion bildurrik gabe bere egitekoari, eta altxatu zanean eskatu zuen baso bat ur: --Pa que se vaya el susto, esan zuen.

Ajolakabeko etxeakoandraren kotxe berean zihoan, eztijario- txulapo, aide edo gisa orretako bat, itxuraz beintzat, len esan degun neskatill mingaiñzikiñaren urbiltxoan zijoalako, zeña erreparatu zan aztalak agirian zeuzkazkiten lisiba- jotzalletan eta bere lagunai adierazi zien ikusgarri gozotsua. Berriro ojuak, txistuak, itz-astunak eta lore likitsak erreko neskatxai zuzenduak; okerreana da eztijarioak esan izan bear zuela neskatx aetakoren bat ederra zala, zeren bere ondoko neskatx goisokari-txulapa asarretu zan eta asi zan belarriak gortutzen zituen ojuakin lotsagabekeriak aei esaten, lagundutzen ziotelarik beste gizon eta emakume batzuek, gañerakoak zalapart aundia paratzen zuten bitartean aztal agirien

gañean, ainbesteraño, ezik neskatx gaisoak, lobelar batzuek baña gorriagotuak eta lagaturik saski arropak, juan ziran estazio atzeko igeslekura.

--Paece imposible que a naide le guste esas patonas. Olé! aqui está lo bueno! en tooito Madrí no hay otros pinreles como los mios! si le igo a osté que son terroncitos de azucar!, oju egin zuen neskatx-goisokariak eta para zuen leiatillaren ertzean bere ezkerreko oiñtxoa, txiki-txikitxoa, Madrill-tarrarena baña txinotarrarenagoa, kafesne kolorezko gañ-tela eta txarol beltzarekin egindako botiñez jantzia.

--Viva lo bueno Frascuelita!, oju egin zuen beste pattar boza zuen eztijario batek, eta gitarra bat arturik, zirrin-zarran bat gaizki jo ondoren, kantatu zun:

El cazador que es diestro
de noche caza,
de este modo, las liebres
pilla en la cama,
y acierta el golpe
si es que no desperdicia
las municiones.

--Pero han visto ustedes, *esan zuen benetazko bale andaluz etxeakoandre pisegilleak*, con que poca verguensa enseñan la chica de esta tierra de mansana lo que en otra parte solo se enseña al novio? Aqui que disen que hay más cura que borracho en San Lucar de Barramea, como no hay nenguno que les dise lo que la decencia manda!

--Pero no ve oste, seña Simona que aqui como no hablan en flamenco

22:30ean: Hegyalja Hungariako Folklore taldea Domingo Unanue Plazan.

23:30ean: Aquarium Orkestra eta Koxkola txarangaren eskutik dantzaldia Plaza Nagusian.

23:30etik 5:30era: Elurte taldearekin mozorroen dantzaldia Beti Alai Pilotalekuan.

03:00etan: Txerri harrapaketa Joxe Miel Barandiaran Plazan.

● Uztailak 26, asteazkena: Santa Ana eguna

6:00etan: Goizaldeko danborrada. Ondoren txokolate jana Arboledan.

8:30ean: Goizeresia Ordiziako txistulari eta trikitixaz alaiturik.

9:00etan: Irungo Udal Musika Bandaren kalejira.

11:00etan: Meza Nagusia.

13:00etan: Irungo Udal Musika Bandaren kontzertua Plaza Nagusian.

18:00etan: Kukubiltxo taldearen eskutik, kale antzerkia, 'Jaiotza' ikuskizunarekin, Alde Zaharrean.

18:00etan: Eskuzko pilota partiduak Beti Alai Pilotalekuan.


19:00etan hasita: 'Kalejira' txaranga.

19:00etan: Dixiekleta Jazz Band taldea Plaza Nagusian.

21:00etan: Kalejira Beti Argi bandarekin.

22:30etan: Nazioarteko dantza folkloriko taldea Domingo Unanue Plazan.

23:30etik 3:30ak arte: Metropolis



Orkestra eta 'Kalejira' txaranga Plaza Nagusian.

23:30etatik 4:00ak arte: Dantzaldia Jator taldearekin Beti Alai Pilotalekuan.

● Uztailak 27, osteguna: Santanazale eta koadrilen eguna

9:00etan: Goizeresia Ordiziako txistulari eta trikitixarekin.

11:00etan: Santanazaleen meza.

12:00etan: Santanazaleen ohizko Esku-Dantza Plaza Nagusian.

12:30ean: Koadrilen irteera.

21:00etan: Kalejira Beti Argirekin.

23:30etik 3:30ak arte: Iruña Band Orkestra eta 'Kalejira' txarangarekin ezkonduen eguneko dantzaldia Plaza Nagusian.

23:30etik 4:00ak arte: Dantzaldia Drindots taldearekin Beti Alai Pilotalekuan.

Oharra: festa egun hauetan Ortzadar Sarian aukeratutako lanak eta Osasun-kume jaiko argazki erakusketa izango dira Barrenan, 18:00etatik 20:00etara.

Txoznetako festak

Uztailak 22, larunbata:

19:30ean: Poteo antimilitarista.

20:30ean: Goierriko 2 preso intsumisoen omenaldia.

Uztailak 23, igandea:

18:30ean: Zegamako trikitilariak eta Aitor Sarriegi eta Igor Eguren bertsolariak.

Arratsaldean zehar Abiadura Handiko Trenaren aurkako erakusketa izango da.

Uztailak 24, astelehena:

19:30ean: Preso, errefuxiatu eta deportatuei omenaldia.

Goizaldeko 1ean, Udaletxetik aterata manifestazioa.

Uztailak 25, asteartea:

19:00etan: kale antzerkia, "Miseria-pobreza-hambre".

20:00etan: malabaristak.

Uztailak 26, asteazkena:

19:30ean: musika jaialdia "Los santia-gueros" talde kubatarraren eskutik.

Oharra: ekintza guztiok txoznetako gunean izango dira, Ordiziako txoznen komisiok antolatuta.



Artesania
Opariak

K. Nagusia, 28
☎ 16 02 48
ORDIZIA

KISKÁ
PUB

Santa Maria

ORDIZIA



iÑABE ERAIKUNTZAK S. A.

Mota guztietako eraikuntzak

Sanperio, 2

☎ 883829 - 882875

ORDIZIA

Milaka arrain hilik Amundarain ibaian

Azken urteotan biziberritutako Zaldibiatik beherako urak, isuri kutsatzaile baten ondorioz hilleri hutsak bihurtu dira. Arrantzaleen artean haserre bizia piztu da Diputazioko goarden jokaeragatik. Lau egun beranduago iritsi zirenez, lantegi kutsatzailea ez da zigortua izango.

Ekainaren 29a Amundarain ibaia maite zutenen eta orohar naturazaleen oroimenean luzarorako geratuko da. Egunaren azken ordutan eginiko isurketa kutsatzaileak, Zaldibian jaio eta Ordizian Oria ibaiari bere urak entregatzen dion Amundarain ibaitik azken bizi izpia ere ezabatu zuen. Kutsadurak hain gogor jipoitu duen erreka hau azken bi urteotan biziberritu zen, guztion pozerako. Amuarrainak, aingirak, eskaluak, loinak, barbuak, ahateak, uroiloak eta martin arrantzaleak, besteak beste, Amundarain ibaia hartua zuten bizilekutzat.

Urteak izango dira egoera honetara bueltatzeko. Baina arrantzale eta naturazaleen artean samina areagotu duen beste arrazoirik ere bada: lantegi kutsatzaileak ez du inolako zigorrik jasoko, Diputazioko goardak lau egun beranduago (uztailaren 2an) agertu baitziren Zaldibia ingurura gertatutakoaren berri irratitik izatean.

Milaka arrain erreka bazterrean

Bilore lantegiaren paretik hasita Oria arteko 4 kilometroko ibaiaren ibilbidea



Orkliko presa, Ordiziako udalerrian. Hildako amuarrainen atzean ikus daiteke oraindik kutsaduraren ondorioetako bat: aparra eta argazkia isurketa gertatu eta lau egunetara egina dago...



30 zentimetrotatik gorako hiru amuarrain, Zaldibiako Logos enpresaren parean aurkitu eta argazkirako bilduak.

egitea oso ariketa gogorra izan zen uztailaren lehen egunetan. Erreka bazter guztiak arrainez lepo, tartean tarteko kilotik gorako amuarrain eta aingirak topa zitezkeen.

Inguruetako baserritarrek ez zuten zalantzarik izan hondamendiaren jatorria eta erruduna azpimarratzekoan. Baina hamaikagarrenez, frogarik ezak zigorrik gabe utziko du Zaldibian kokaturiko lantegi hura, guztion ahotan

dabilena baina akusatu ezin daitekeena. Aparra beldurgarria izan zen ostegun eta ostiralean, baina ezin izan zen ezer egin kutsadura ekiditeko. Dirudieenez Ertzaintzaren autoreen bat hurbildu zen ingurura eta espero da beraiek jasotako datu eta urerakusgarriak nahikoa izatea Diputazioko goarden hutsa zuzentzeko eta denuntzia ezartzeko.

Igandera arte ez zen goardarik agertu Zaldibia eta Ordiziatik igarotzen den erreka. Eta iritsi zenean Donostiatik etorria zen goarda bat zen, tokia ezezaguna zuena eta arrazoi batek mugitua: Zaldibiako alkatearen presentzia irratit batean gertakaria salatzen. Erreka miatu ondoren argi utzi zuen denuntzia ipini bai baina inori errua botatzeko frogarik ezan ezin zitekeela gehiagorik egin.

Ez da lehen aldia

Gertakari hau, tamalez, ez da berria Amundarain ibaian. Kutsadura honek ezabatu zituen erreka behe tramutik Zaldi-

biako herritik gora aurki daitezkeen espezieak. Aberastasunetik ezerezara bapatean pasatuko erreka, ordea, azken urteotan gainditu zituen isurketak, neurri txikiagoan eginak eta horregatik ez hain hiltzaileak. Baina urte sasoi honetako ur emari murrizak eta neurri gabeko isurketa hau gehiegizkoak izan ziren Amundarain gaixoarentzat.

J.J. Balerdi

ILEAPAINDEGI MISTOA

XerLo

Joan Iturralde, 5-7 (solairu-arte) Tfnua.: 16 11 05 BEASAIN

Zurgindegi mekanikoa

JOSE M. YARZABAL

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE Txindoki, 1. - 3-2 Pab. ORDIZIA Tfnua eta Faxe: 88 90 17

ATEAK LEIHOAK ESKAILERAK OBRAK ERREFORMAK

Segura ezagutaraztea

"Segura tradizio bizia" herriko ondarea herritar nahiz kanpotarrei hobeto ezagutarazteko proiektua da. Idoia Lakarta eta Marta Ibañez de Aizpurua filologoen zuzendua, Koro Esteban eta Aitor Garmendia historiagileen laguntzaz. Azken hilabeteotan Segurari buruz egin duten lana abuztuan eta irailean zehar ezagutaraziko dute. Deustoko Unibertsitatearen eta Foru Aldundiaren arteko konbenioaz bultzatutako proiektu hau hiru ardatz nagusitan gauzatuko da:

- 1.- Egitasmoaren berri emango duten foiletoen eta txartelen argitalpena.
- 2.- Herriko lau eraikuntza aipagarrietan erreparatuz bixita gidatua: Ama Jasokundearen Eliza eta Gebara Euskadiko monumentu nazionalak, Foru Aldundiaren laguntzaz zaharberritu duten Zerain Portala, eta Ardixarra, itxuraldatu gabeko kale etxe bakarretakoa. Hauez gain, Konbentua, Arrue, Jauregi, Balentziaga, Lardizabal, Abendaño, Errementari, Armaola Errota, Atzeko Portala, eta Oxiña Portala eraikuntzen aipamena eta bakoitzaren jatorrizko data azalduko den gida banatuko da.
- 3.- Herriari buruzko erakusketa Kultur Etxean: kirola, erlijioa, eta monumentuetan oinarritua. Argazki, tresna, eta artxibo dokumentuen bidez.



Zerain Portala herriko harresi aterik inportanteenetakoa zen. Bi kainoi zuloz osatutako ateak itxura gerlaria du, Gipuzkoan bakarra. Duela gutxi zaharberritu eta jatorrizko neurrira egokitu zuten.

Segura kanpora ezagutarazteko lehenengo pauso bat besterik ez denez, beste hainbat eraikuntza, ermitta... ez dira momentuz kontutan hartu.

Gidaturiko bixitak abuztuan eta irailean zehar asteburu eta jai egunetan izango dira, goizez 11:00etatik 13:00etara eta arratsalde 16:00etatik 18:00etara. Astegunetan berriz, Udaletxera deituz, 801006 telefonora.

Komisio irekiak

Udaletxean banatu berri diren komisiok irekiak izatea erabaki da, eta edozein herritarrek parte hartu ahal izango du bertan. Horretarako, uztailaren 28a aurretik eman beharko da izena Udaletxean eta komisiotan asistentzi iraunkorra eskatuko da. Urbanismoa, Nekazaritza, Ongizatea, Hazien da eta Emakumea-Sanitatea EAren es-

ku geratu dira. Zerbitzuak, Kirolak, eta Ingurugiroa HBren esku. Eta Kultura eta Hezkuntza EAJren esku. Alderdi bakoitzak zein komisiogehiagotan parte hartuko duen ondorengo egunetan erabakiko da.

Bestalde, irailaren azken ostegunetan hasita 2 hilabetero, azken ostegunetan egingo dira plenoak. Pre-sazko zerbait balego, talde politikoetako bozerama-leak elkartuko lirateke.

Elizako pitzadurak

Enpresa berezitu batek Kanpatorratzean burutu berri duen geologi azterketak dio oinarrian ez da goela inongo arazorik. Beren altuera dela eta, paretetan bertan egon daitekeela arazoa. Hori jakiteko beste azterketa bat egin beharko litzateke.

Futbol taldearen oharra

Segurako futbol taldekoek pasa den uztailaren 17, 18, eta 19an egin zituzten lehendabiziko entrenamenduak datarren denboraldiari begira. Entrenamendu hauetan parte hartu ez, eta juvenil nahiz errejional mailetan aritu nahi dutenak jar daitezela harremene-tan zuzendaritzakoekin (Juanan 801813 telefonoa).

 **Joseba Telleria**



-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bainuarekin.
-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserriko oilaskoa, arkumea...
-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000 pzta bataz beste.

MANDUBIKO BENTA

Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik Goierriako bidean
Tfona: 88 26 73

Jai egitaraua prest

Hona hemen aurtengo San Bartolome jaietarako prestatutako egitarauaren berri:

● Abuztuak 23, asteazkena:

9:30etatik aurrera: XV. Apeaderora igoera.

11:30ean: Kuadrilak disfrazaturik plazan biltzea, Oria txarangarekin.

12:00etan: Festen hasierako kanpaijotze, suziri eta Pregoia.

14:00etan: Elizondoko plazan kuadrilen bazkaria.

17:00etan: Bezpera Nagusiak.

17:30ean: XVIII. Zegamako Futbito Txapelketaren azken partidua.

18:00etan: Txarapen, herritarrentzat bolajokua. Ondoren haurrentzat bola txapelketa.

18:30ean: Buruhaundi, Erraldoi eta Zankodunak Oria txarangak lagundurik.

19:30ean: Ondoren Herriko Plazan Dantza Lehiaketa disfrazatuen artean.

23:00etatik 3:00etara: Trabuko.

● Abuztuak 24, osteguna:

9:00etan: Herriko Txistulari Taldearekin kalez kale goiz eresia.

11:00etan: San Bartolome Ermitatik Parrokira prozesioa txistulari, dantzari eta herriko agintariekin batera. Ondoren Meza Nagusia.

12:30ean: Arin-Arin eta Fandango saioa bikoteka.

18:00etan: Pelota partiduak.

20:00etan: Zankodun, Erraldoi eta Buruhandiak kalez kale herriko txistulariekin.

23:30etatik 3.30etara: Drindots musika taldearekin dantzaldia plazan.



● Abuztuak 25, ostirala:

10:00etan: Diana herriko Txistulari taldearekin.

11:00tan: Plazan Toka txapelketa Olaberriko Elkartek antolatutik.

12:00etan: Arakama trikitilariak herrian zehar.

13:00etan: Bertsolariak herriko plazan. M. Telleria, S. Lizaso eta A. M. Peñagarikano.

18:30ean: Bertsolari eta trikitilariak.

19:30ean: Parapente ikuskizuna. Aizkorritik - Murgizelaira.

20:30ean: Zankodun, Erraldoi eta Buruhandien kalejira herriko trikitilariak.

00:00etatik 4:00ak arte: Joselu Anaiakekin dantzaldia plazan.

● Abuztuak 26, larunbata:

7:00etan: Zezenak Olaberriko futbol zelaian, Urantzu dultzaineroekin.

9:00etan: Diana Urantzu Dultzaineroekin.

10:00etan: Probintziako Bola Txapelketaren lehen saioa, Txarapeko bolatokia.

12:30ean: Trialsin ikuskizuna plazan. Ondoren Urantzu Dultzaineroak.

15:30ean: Herri mailako tiro-platoa Murgizelaien.

18:30ean: Herri kirolak. Ondoren Urantzu Dultzaineroak.

20:00etan: Zankodun, Erraldoi eta Buruhandiak Urantzu dultzaineroekin.

1:00etan: Suziri eta trakea erretzea.

11:30etatik 4etara: Egan.

● Abuztuak 27, igandea:

8:45ean: LXII. San Bartolome Txirindulari Froga. (Lehenengo eta Bigarren mailako afizionatuentzat)

11:00etatik 14:00etara: Haurrentzat jokuak herriko plazan.

12:00etatik 14:00etara: Eskularen erakusketa Herri Eskolan. Marrazki erakusketa Eliza aurrean.

16:30ean: Haurrentzat jokuak herriko plazan. Ondoren txokolate jatea herriko plazan denentzat.

20:30ean: Zankodun, Erraldoi eta Buruhandien kalejira herriko txistulariekin.

Oharra: Kultur Etxean, ikasturtean zehar eskularen tailerrean egindako lan erakusketa: Egunak: Abuztuak 24, 25, 26 eta 27. Ordutegia: 12.30etatik 2etara eta 7etatik 9etara.

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba
MOTA GUZTIETAKO: Pentsuak, Ongarriak, Lantresnak

Euskalerrria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15 **ORDIZIA**
☎ 16 07 07 **OLABERRIA**



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 **BEASAIN**

GOTen mozioa baieztu eta Gobernu Batzordea osatu

Legeak jarritako epearen arabera Udal bakoitzak bere udala antolatua izan behar zuen uztailaren 17a baino lehen. Hori dela eta, pasa den uztailaren 13an ez ohizko plenoa egin zen. Goierriko Objektore Taldeak (GOT) aurkezturiko mozioa zela eta, bigarren pleno bat ere egin zen. Ekainaren 17an Jon Jauregi alkate izendatua izan zen, eta alkateordeak, Gobernu Batzordeko partaideak eta Batzorde Informatzaileetako batzordeburuak izendatu ziren hilaren 13an.

Lehenengo alkateordea Jose Luis Elorza (PSE-EE) da, 2. Jose Inazio Insausti (EA) eta 3. Arantxa Aseginolaza (EAJ). Hiru alkateordeak alkatearekin batera Gobernu Batzordea osatuko dute. Batzorde Informatzaile ezberdinen banaketan HB, PP eta IU batzorderik gabe geratu dira. EAJk 5 batzordeburu izango ditu, PSE-EEK 2 eta EAK beste 2: Hazienda eta Ondareko batzordeburua Jose Antonio Guidan (EAJ), Gobernaziokoa Alfonso Segade (PSE-EE), Kultura eta Hezkuntzakoa Arantxa Aseginolaza (EAJ), Gazteria eta Kiroletakoa Jose Inazio Insausti (EA), Euskarakoa Patxi Plazaola (EAJ), Zerbitzu eta Landa Inguruetakoa Jose Mari Sarasola (EA) eta Osasun eta Gizarte Ongizatekoa Jose Luis Elorza (PSE-EE).

GOTek aurkezturiko mozioa izan zen 2. plenoko gaia. Talde honen mozioaren bidez Aitor Mendizabal eta Jon Olano intsumiso beasaindarren atxilotetak direla eta, Udalbatzak GOTen idatziairekin elkartasuna baiezte lortu nahi zen, eta idatzia publiko egitea eskatu zen. GOTek Aitor eta Jonen atxi-



Aurtzaka eta Ordiziako Jakintza dantza taldeak elkarrekin joango dira Britainia eta Galesera.

loketaren aurrean honakoa adierazten du:

- Intsumisioa gizartean gero eta nabariagoa den onespina lortzen ari den birtartean, Estatuak, bidezkoak ez diren zigorren bidez konpon daitekeen arazotzat jotzen diharduela; eta horren lekuko direla Aitor eta Jonen atxilotetak.

- Udalbatzak atxiloteta hauek, eta orohar intsumitu guztiek pairatzen dituztenak gutziz gaitzesten dituela.

- Aitor Mendizabal eta Jon Olano beasaindar gazteei beren erabateko elkartasuna adierazten diela.

- Intsumisioari ez diola delitu irizten eta gazte hauen berehalako askatasuna exijitzen duela.

- Bide batez, derrigorrezko soldaduska eta honen ordezkoko den Zerbitzu Sozialaren deuseztapena exijitzen duela, be-rauek elkartasunezko eta bakezko gizarte bat lortzeko oztopo baitira.

Mozioa baieztua geratu zen aldeko 11 botorekin (EAJ, HB, EA eta IU). PSE-EE eta PPko 4 zinegotziak abstenitu egin ziren.

Aurtzaka atzerrira

Badira 8 urte Aurtzaka azken aldiz atzerrira joan zenetik. Ez ziren garai makalak haiek. Besteak beste, Poloniara, Iparraldera eta aurtan bezala Ponterdaweko Musika eta Folk Jaialdira joan ziren. Hainbeste denbora pasa ondoren eta aurretik 4 edo 5 aldiz bertara joan ondoren, aurtan berriaz urtero bezala Ponterdaweko jaialdira joateko gonbidapena iritsi zaio taldeari.

Hasiera batean Galesera joatea zaila ikusten zen, taldeko dantzari guztiak ezin baitziren joan. Baina azkenean Ordiziako Jakintza dantza taldearekin bat egin eta aurrera doa guztia.

Bi talde hauen bateratzea ez da berria, aurretik Galesera elkarrekin joanak dira eta beste zenbait ekintza ere elkarrekin burutu dituzte. Orain entseietan gogorlan egiten ari dira eta abuztuaren 6an autobusean sartu eta lan horren fruitua erakustera joango dira. Txalaparta, txistulariak, trikitilariak eta dantzariak joango dira, guztira 30 lagun.

Gonbitea Galesera joateko izan arren, aste bete lehenago Britainian geratuko dira, Sain Jean De Monten izango dute kanpamendua eta inguruan bi edo hiru saio eskeiniko dituzte. Bertan entseiuak burutuko dituzte eta abuztuaren 14an Ponterdawera joango dira. Herrialde ezberdinetako jendea elkartuko da han eta aste betez gure folklореaren berri utziko dute jaialdi horren bidez. Abuztuaren 20an, nahiko dantza egin ondoren berriro autobusa hartu eta itzuli egingo dira. Bidaia ona izan!

Izaskun Salazar



✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
✓ Karta, batzaz beste, 2.000 pzta.
☎ 18 00 19 ATAUN S. Martin



JCS & BEL

ILEAPAINDEGIA
Azken teknika
eta nobedadeak

Presio altuko
solariuma

Urdaneta, 15 ☎ 88 82 52 ORDIZIA

Koke Lasa Hidden Peak lortzeko bidean

Ekainaren erdi aldetik Koke Lasa espedizio garrantzitsu baten partaide dugu, beste bi gipuzkoar (Rafa Berasategi segurarra eta Urnietako Txetxu Lete) eta madrildar batekin batera. Oraingoan, eta aspaldidanik helburu hau lortzeko lanean aritu ondoren, Koke Lasak mendiarekiko duen zaletasunak Pakistan aldeko lurretara eraman izan du, (Ikus GOIERRITARRAren 72. alea) Hidden Peak (8.068 m) igozteko helburuarekin.

Beraiek adierazi zuten bezala izotza eta eguraldia izango dituzte trabarik handienak eta badirudi zoritxarrez horrela gertatu dela, Rafa Berasategi segurarrak uztailaren lehen egunetan etxerako bidea hartu behar izan baitzuen. Lerro hauetatik jaso dezala segurar honek guztion zorionik beroena, nahiz eta gailurra ez lortu ahalegintzea ez baita gutxi. Gainantzeko taldeki-deek eta bereziki Koke Lasak gailurra noiz lortuko duen zain gaude. Abuztuaren erdi alderako euskal mendizale talde honek bere ametsa egi bihurtua izango duela pentsatzen dugu.

Urruntasunetik bada ere, lerro haueetatik bultzadarik beroena bidali nahi diegu eraman zuten helburua egi bihurtu dezaten.



Koke Lasa espedizio garrantzitsuen partaide izan da.

Giro ederra Liernian

Aurtengoan ere giro ederrean burutu zen igandean Ormaiztegiko herriak Liernira egin zuen erromeria. Eguraldiaren laguntzarekin egun osoan zehar Liernira jende asko hurbildu zen. Eguerdiko 12:30ean Lierniko Amaren ermittan ospatu zen Meza Santuan zuzendari Ormaiztegiko seme den eta

urte askoan zehar Peru aldean Gotzai lana burutzen ari den Migel Irizar izan genuen. Ondoren haurrentzako jokoak izan genituen. 14:30ean bazkari herrikoa izan zen, aurtien Arzak eta bere lagunek prestaturiko marmitakoa das-tatzeko aukera izan zen. Marmitakoa prestatzeko 70 kilo patata, 37 kilo atun, 12 kilo piper, 5 kilo tipula, 4 litro olio erabili ziren.

Arratsaldean herri kirolak izan ziren. Bertan 9 urteko Aimar Irigoien errezildarrak 28 kiloko harria bi aldiz esku batez altxa zuen, 40 kilokoa beste bi aldiz eta esferikoa buruan bueltaka dozena erdi bat aldiz ibili zuen bertara hurbildutakoen txalo artean. Ondoren sokatira izan zen. Lau bat taldek parte hartu zuten. Iaz bezala, Arzak eta bere taldea izan zen garaile; bigarren Bigurriak deituriko taldea gelditu zen; hirugarren Artajorra eta laugarren Begigorri taldea.

Guztiekin lehengo urtean baino maila altuagoa erakutsi zuten, hurrengo urtean irabazle gertatu nahi izanez gero prestakuntza bereziren bat eginda hurbildu beharko dute bertara.

Aitziber Murua

IDIAZABAL

San Inazio auzoko jaiak

Bi egunetako jaiak antolatu dituzte San Inazio auzokoek aurtengorako. Jaietarako gogoia eta umorea soberan dute.

● Uztailak 30, igandea:

11:00etan: umeentzat jolasak.

13:00etan: suziriak eta txikiteo orokorra.

14:30ean: auzo-bazkaria, trikitixa, txiste eta bertsolariz alaituta.

18:00etan: Mus Txapelketa azkarra.
22-GOIERRITARRA



00:00etatik goizalderarte: dantza saioa Joseba Iparragirre eta bere taldearekin.

● Uztailak 31, astelehena:

12:00etan: Meza San Inazio ermittan.

13:00etan: txirrindulari proba.

18:00etan: asto lehiaketa mundiala.

19:30ean: sagardo dastaketa.

00:00etatik goizalderarte: Joselu anaiak taldearekin dantzaldia.

LGA erreko zaborrak ateratzen



Gazte Asanbladak ekainaren 17an Agauntza errekoaren 2. garbiketa egin ondoren, han aurkitutako zaborrei ateratako argazkiekin, erakusketa egin dute herrian uztaileko azken asteotan. Ekainaren 17an, 24 lagun elkartu ziren goizeko 9etan, eta ura nahiko freskoa bazegoen ere, oso giro onean, barianteko zubitik presarainoko bidean zeuden zaborrak jasotzen jardun zuten ordu biak arte. Azkenik eta lana ondo bukatzeko asmoz, hamaiketako bat ere egin zuten.

Hasieran erreka nahiko garbia zegoela bazirudien ere, behera jeisterakoan denetik zegoela esan digute LGAkoek, eta gainera Agauntzan zeuden sukaldeetako txapak, obretako gauza pila bat, festetako kristalak eta burdin ugaria salatzen da LGaren esanetan. Zaborrak jasotzeko, kontainerrak erreko

jaitsi eta lagun batzuen artean igo behar izan zituzten, eta baita udaletxeak utzitako dunperra erabiliz ere. Garbiketan, errekan zeuden zenbait zuhaitz ere atera behar izan zituzten. Guzti honen ondoren, ez zuten udaletxe edo beste inoren eskerririk jaso.

Azkenik eta eginda-ko erakusketaren bidez, jendea honelako ekin-

tzetara bultzatzea da LGaren hurrengo helburua.

Abuztua Maizpiden

Maizpide euskaltegian Udako Euskal Ikastaroak hasi direla eta, urtero bezala jende berri ugari etorri da herrira euskara ikasi edo hobetzeko asmoz. Uztailean 285 lagun etorri dira euskaltegira. Abuztuaren euskaltegiko irakasleen oporrak direla eta, ikasleen kopurua zertxobait murriztuko da.

Deigarri moduan aipa dezakegu, euskara ezagutu eta ikasi nahi duten atzerriarrak geroz eta gehiago direla. Uztailean adibidez, urte askotan etorri den finlandiar bat eta Belfastetik bi irlandar egon dira. Abuztuaren berriz, austriar bat eta zenbait alemaniar etorriko dira. Estatutik berriz, Valladolideko bat eta bost madrildar uztailean, eta gehixeago

abuztuaren etorriko dira. Azken hauek euskara hobetzeko asmoarekin etorriko dira, beraien hiri eta herrietan dauden hainbat euskal eskoletan euskara eza-gutzeko aukera izan baitute.

Barnetegian egiten diren ekintzez gain, Maizpidek abuztuaren ondoko ekitaldiok prestatu ditu: **Abuztuaren 8an**, Koldo Ameztoyren ipuin kontaketa. **Abuztuaren 22an**, Javier Juanesen diapositiba emanaldia. Gaia: "Estropadan". Biak iluntzeko 9etan, Maizpideko zinema aretoan.

Xake Elkarte

Orain dela 10 urte jaiotako Elkarte honek, eta hauetatik 3 Preferente mailan daramatza, aurtengo Gipuzkoako taldeen txapelketan 8. postua lortu du. Esan behar da gainera, Preferentean jokatzeko duen Goierriko talde bakarra Lazkaoko Xake Elkarte delako. Txapelketa berdinean baina 2.B mailan, Lazkaoko taldeak 4. postua lortu du.

Elkarte honek, herrian xake jokua bultzatzearren, herriko jaietan haurrentzako txapelketa bat antolatu zuen. 133 haurrek hartu zuten parte. Talde honen azkeneko ekintzen artean, Ikastolan xake klaseak emateaz aparte, Lazkaoko Xake Elkarteak urtean zehar egiten dituen ekintzen berri emango duen aldizkari bat ateratzea da.

 Iraida Martin

JERONIMO-ENEA

*Taberna
eta
gasolina surtidorea*

☎ 80 10 96 IDIAZABAL

HORTZ KLINIKA

RUIZ VILLANDIEGO eta PARDO MINDAN Doktoreak



- * HORTZEN EDERKUNTZA
- * HORTZ EZARKETAK
- * MATRAIL-HEZURREKO ARTIKULAZIOAREN TRATAMENDUAK
- * PROTESIS FUNTZIONALAK

Andra Mari, 7 - 1. A BEASAIN Tfnoa.: 88 07 83

Andra Mari jaiak gainean

Egun batzuk falta bai, baina uste baino lehenago izango dugu gainean abuztuaren 14a. Zer izango den eta zertan parte hartu dezakezen jakin nahi izanez gero, hona hemen aurtengo egitaraua:

● Abuztuak 14, astelehena:

11:30etan: herriko gazteen arteko futbito txapelketaren azken partidua.

16:00etan: haur jolasak.

18:00etan: pala txapelketaren finala.

19:00etan: kanpai bueltakoak eta suziriak, festei hasera emateko.

20:00etan: ohizko gibel jatea, Liz-tormendi Elkartearen. Edonork parte har dezake aurrez izena emanaz gero.

22:00etan: haur eta helduen dantborrada. Ondoren dantzaldia Rekalde anaiak trikitilariekin.

● Abuztuak 15, asteartea:

9:00etan: txistularien goizeresia etxez-etxe.

10:45etan: Alkatea eta zinegotziak Elizara joango dira "Alkate soinu"ren doinuaz.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: txakoli dastaketa herriko plazan.

17:00etan: Andra Mari bola txapelketaren hasera.

17:30etan: Pelota partidua herriko pilotalekuan.

19:00etan: VI. Trikitixa Txapelketa. Ondoren eta goizalderarte Rekalde anaiak trikitilariekin dantzaldia.

● Abuztuak 16, asteazkena:

9:00etan: txistularien goizeresia etxez-etxe.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:00etan: herri kirolak herriko plazan: Zeraingo taldea Beasaingo taldearen aurka. Bertsotan S. Lizaso eta I. Lazkano arituko dira.

17:00etan: Bola Txapelketaren azken saioa.

20:30etan: Herri afaria, Lizaso eta Lazkano bertsolariak eta Juanito Mendizabal txiste kontalariarekin. Afal ondoren, Kristina, Amaia eta bere taldearekin dantzaldia. Mozorro gaua izango da.

EZKIO-ITSASO

Udal berria martxan

Hauteskundeak egin, alkatea aukeratu eta Udal berria osatzeko garaia iritsi da. Gauzak honela, alkateorde eta lan eremuen arduradunen izendapena egin zen joan den astean. Honakoak dira: lehenengo alkateordea Jose Inazio Etxezarreta; bigarrena Jose Maria Zumarraga eta hirugarrena Prudenizio Mujika.

Plenoan batzorde orokorra eta Hazienda eta administrazio batzordea sortzea erabaki da. Batzordeen konposaketan udalkide guztiek hartuko dute parte eta lehendakaria alkatesarena izango da.

Lan eremuei dagokienean, 6 eremu finkatu dira. Hauexek dira lan eremu eta arduradunak: Hirigintza: Jose Inazio Etxezarreta; Zerbitzuak: Ximon Idiakez; Nekazaritza: Prudenizio Mujika; Kultura: M^a Isabel Olanga; Gizarte Zerbitzuak M^a Isabel Arakistain; eta Hazienda: Maite Salutregi.

24-GOIERRITARRA



Alegin madalenak

Madalenak hementxe dira, gainean ditugu. Beraz, Alegiko festez gozatzeko aukera paregabea daukagu 2 egunotan. Hauxe duzue egitaraua. Ondo pasa!

● Uztailak 21:

20:30etan: herri afaria. **23:00etan:** Joselu Anaiak alaituriko berbena.

● Uztailak 22:

12:00etan: Meza Nagusia. Ondoren herriko trikitilari gazteak. **19:00etan:** ume jolasak, trikitilari eta guzti. **23:00etatik aurrera:** Joselu Anaiak alaituriko berbena.

 **Pilare Mujika**

Batzuk barkazio, besteak lan



Aldarreta Azpikoa.

Aldarretan turistak

Lan faltarik ez dute izango abuztuan. Ondo beteta edukiko dituzte kanpotarrez, turismorako jarrita dauzkaten 4 gelak. 8 lagun guztira.

Iazko apirilean ireki zuten eta harrezkero jendepila pasa da Aldarreta-Azpikotik. Batez ere, Katalunya eta Valentzia aldekoak, jende gaztea, 25-40 urte bitartekoak, bikoteak edo matrimonioak. Batzuk bazterrak ikustera, beste batzuk mugitu gabe egotera. Gutxik heltzen diete baserriko lanei. Gehienak hiri handitan bizi direnak. Urruti xamarreko jendea ere azaldu da. Ameriketatik, San Frantziskoko neska bat, alemaniar bat ere bai San Fermi-netatik bueltan eta Kanariasko matrimonio bat ere bai... Ba da, gustoa hartu eta "repetitu" duenik ere, Laudioko batzuk 5 aldiz etorri dira. Maitere eta Pedro oso gustora daude esperientziarekin. Jende oso ona tokatu omen zaie. Bixitari gehien Aste Sainduz eta udan izaten dute. Normalean 3-4 egun edo astebate pasatzen dute.

500 urte inguruko baserria, inguru zoragarria eta beti gauza berriren bat: bi txakurkume ikusi genituen oila-lokaren azpian.

Zer gehiago nahi da? Telefonoa: 180366.

Lehenbiziko plenoa

Hilaren 11n egin zen karguak eta batzordeak banatzeko plenoa. Nobedade

bat: Mendi saila bi batzordeetan izango da hemendik aurrera: Batzordeak: Bitarteko, preso-postu, antolaketa (Iñaki Eskisabel, Herrigintza). Honen baitan, Mendi-publikoen ustiaketa etab; Hiri-gintza (Pello Agirre, Herrigintza). Honen barruan, baserri-bideak; Kultura, turismoa, kirola (Jose Benito Apalategi, Herrigintza); Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak (Jone Erauskin, EA).

Batzordeak osatzeko jendeari gonbitea luzatuko zaio.

Karguak:

Lehen alkate-ordea Jone Erauskin; bigarren Iñaki Eskisabel. Batzordeak beti informatiboak izango dira. Erabakiak plenoan.

HBren ustez, mendi-sailak lehen bezala funtzionatu beharko luke zatitu gabe. HBren iritzian, kontsentsutik kanpora egin da antolaketa eta ezin du bere iritzirik eman.

Plenoak hileko lehen asteartean egingo dira. Lehenbizikoan 6 ikusle besterik ez.

San Gregorioko frontoia

Inaugurazioa hilaren 30ean izango da. Bertan izango da besteak beste, Roman Sudupe Aldun Nagusia. Auzotarrek antolatuta ohiko festa giroan, trikiti, bertsolari, pelotari, bazkari etabarrekin ospatuko dute eguna.

Atauni buelta

Zentzurik onenean. Larunbatak 22, arratsaldeko 4etan irten San Martingo Plazatik eta igande arratsaldean itzulera. Gaua Aretzako gainean. Antolatzaile: Ataun Kirol Elkarte.

Marron Pirineotan

Abuztu guztian zehar Pirineotan ibiliko da batetik bestera. Ibilaldiak presatu ditu, joan nahi duenarentzat. Plan polita gustatuz gero.

Iker Sukia

Sasoiko dabil. Urrezko domina ekarri du Ingalaterrako Bath hiritik. Gazteen Olinpiada egin dute bertan eta 5 kiloko burni-bola, 20 metro eta 13 zentimetro bota zuen. Metro eta 90 zm., 101 kilo eta 17 urte besterik ez. Zorionak.



"Maomendiko pago haundie".

Maomendiko pago haundia

Neurtu dute. Metro t' erdiko altueran, 3 metro eta 16 zentimetro da bueltan. Osasunez ondo eta gazte dago oraindik. Itzal ederra. Baditu senideak inguruan. Pizsinak eta hondartzak ahaztu eta bertan pasako ditut oporrak!

Agorren emen izango gea! Ondo ibili.

 Jon Aizpurua

Parrandarako prestatzeko garaia

Aurtengo Andra Mari jaietarako egitaraua prest dago jada. Abuztuaren 13tik 16ra bitartean, makina bat ekintzetan parte hartzeko eta parranda egiteko aukera izango da herritik mugitu ere egin gabe. Egitaraua jarraian duzue:

● Abuztuak 13, igandea:

19:00etan: Txupinazoa eta futbol txapelketak.

21:00etan: Afaria Gaztetxean.

● Abuztuak 14, astelehena:

9:00etan: trikitilarien diana.

11:00etan: Mountain Bike txapelketa Goiko Plazan.

13:00etan: Hamaiketakoa eta X. Zerberio, Imanol Lazkano eta Xabier Amurizaren bertso saioa Beheko Plazan.

16:00etan: Haurrentzako txirrindu proba.

18:30ean: Herri kirolak: Herriko Gazteak Beasaingo Taldearen aurka.

19:30ean: Salbea.

20:30ean: Kalejira herriko txistulari eta buruhandiekin.

21:00etan: Herri afaria Beheko Plazan.

22:30ean: Zapotxin taldearekin dantzaldia Beheko Plazan.

Oharra: 11etatik 1era eta 4etatik 6etara, haurren parkea izango da Beheko Plazan.

● Abuztuak 15, asteartea:

9:00etan: Txistularien diana.

11:00etan: Meza Nagusia.

12:30ean: Toka Txapelketa Beheko Plazan.

18:30ean: Pelota partiduak Errota Frontoian: pelotari gazteak eta profesional ohiak.

22:30ean: Mus Txapelketa.

22:30ean: Laiotz taldearekin dantzaldia Beheko Plazan. Mozorro lehiaketa izango da.

● Abuztuak 16, asteazkena:

5:00etan: Txokolate jana Goiko Plazan.

6:00etan: Tanborrada.

9:30ean: Txistularien goiz eresia.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:30ean: Beheko Plazatik Altzagarateko Igoeraren irteera.

12:00etan: Altzagarateko Igoeraren amaiera.

18:00etan: Zinta Karrera Beheko Plazan.

20:00etan: Patata tortila Txapelketa.

20:30ean: Trikitixa Iparragirre anai-arrebekin.

LEGORRETA

Udaleku irekiak

Uda heldu dela eta, Ugaro Herri Eskolako Guraso Elkarteak udaleku irekiak antolatu ditu beste urte batez. Uztailaren 3tik 21era bitartean, 3tik 8 urtera bitarteko 40 haurrek hartu dute parte hartu dute bertan. Astelehenetik ostiralera, goizeko hamarretatik ordu batera, Herri Eskolan izan ditugu. Asteazkenetan irteerak egin dituzte Ale-giko parkera, Oianguera eta Beasaingo igerilekura.

Begirale lanetan Oroitz Arrizabalaga, Agurtzane Iturbe eta Agurtzane Garmendia izan ditugu Beraien lana batez ere haurrentzat jokuak prestatzea eta haurrak euskaraz mintza daitezen saiatzea izan da. Udaleku ireki hauen helburu nagusia azken batean, haurrak uda partean ere euskaraz mintzatu ahal izatea da eta hori jolasaren bidez lortzen bada gainera, askoz hobe.

 Josune Amondarain



HIRU GOIERRITAR ETA ESKOZIAR BATEK TALDEA OSATU DUTE

FAB-en azala

Ez nago ziur, baina talde honek promozio bideak oso zabalak izango baliu ez luke inongo arazorik izango Estatu mailan arrakasta lortzeko. Musika frexkoa, musikari bikainak eta abestiak egiterako orduan erraztasuna nabari zaie.

Beraiek, Xabi, Igor eta Caballero Drindotseko partaideek, Stuart Euskal Herriaren britainiar irlatik etorritako musikari trebea gehituaz, Fab taldea osatzen dute.

G.- Nola sortu da Fab?

E.- Ni (Stuart), 6 hilabete bakarrik jotzen aritu nintzen eta entzun nuen Drindots taldeak musikari onak zituela. Behin denok bildu ginen eta zerbait egitea pentsatu genuen. Gauzak horrela 4 abesti grabatu genituen Legin estudioetan eta nire anaiari maketa bidali nion Londresera. Gero hark han jotzeko aukera aurkitu zigun. Handik etorri eta hemen lan luzea grabatu genuen eta duela 6 aste atera da emaitza.

G.- Non jotzen duzue gustorago Fab-en ala Drindotsekin?

E.- Oraindik ez dugu denbora gehiegirik izan jakiteko, baina bietan ondo. Gainera biak ezberdinak dira, Fab-ekin gure musika jotzen dugu.

G.- Kontzertuetarako nola konpon-tzen zarete?

E.- Oraingoz oso gaizki, batzutan koinziditu egiten dutelako. Baina gauza hauek konpon daitezke.



G.- Nola egin duzue lan hau?

E.- Legin estudioetako Juanan eta bion artean (Stuart) egin dugu. Esan daiteke lan hau eta Fab eta Juananen artekoa dela, berak gauza asko baitakizki. Taldearentzat Juanan ezinbestekoa bihurtu da. Kolaborazioak ere izan dira, horien artean Sorotan Beleko Mikel eta Txomin Artolarenak.

G.-Espero al zenuten honelako arrakasta izatea?

E.- Ez, nahikoa harritu gara, ingelesez abesten dugu eta orain arte inork ez zekien ezer ere gutaz.

G.- Nola egiten dituzue abestiak?

E.- Denon artean, batek entseia zerbait eramaten du, eta landu egiten dugu batzutan. Baina gehienak entseietan sorturiko abestiak dira. Denon produktua direla esan daiteke.

G.- Zeri buruzkoak dira hitzak?

E.- Gehienak maitasunari buruzkoak. Batek bi zentzu ditu: maitasuna eta Margaret Thatcherren irudia. Bestela militarismoa, sedukzioa, gazte garaiekiko oroitzapenak, suizidoa eta martxari buruz.

G.- Zergatik esan ingelesez euskaraz esan dezakezuena?

E.- Neretzat (Stuart) ez da zentzuzkoa batek bere hizkuntzan ez abestea. Nik nere hizkuntzan egiten ditut abestiak eta gainera orain hemen talde asko daude ingelesez abesten dutenak, beraz ez da harritzekoa.

G.- Soinu propio bat lortzeko erreferentziarik erabili al duzue? Zein talderenak?

E.- Bai erabili dugu, baina instrumentuen soinua lortzeko batipat. Nahasketetako garaian, bestela ez. Manchestergo taldeak, REM, Crowded House, Suede kitarretarako, Stone Roges, Oasis...

G.- Ezer aldatuko al zenukete diskatik?

E.- Azalaren kolorea, oso gorria gelditu da. Batzuetan dena aldatuko genuke eta besteetan ezer ere ez, asko ikasi dugu diska honen gauza on eta txarrekin.

G.- Zer egingo du Fab-ek hurrengo hilabeteetan?

E.- Iraila eta urria jotzeko erabiliko ditugu ahal izanez gero. Abestiak idazten ere ari gara eta bigarren lan luze bat egin asmoz ere bagabiltza. Kanpora jotzera joateko asmoa ere badugu... proiektu asko.

Kontaktua: 88 30 51 (Igor)

Artza



KOLDO TRIKITIXA ESKOLA

Giro jator eta atseginean ikas dezazun zuk aukeraturikoa

☎ 88 50 85

LAZKAO

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa.: 88 89 53

ARAMA

GOIERRIKO ARTE HISTORIAN MURGILDUZ:

Jose Sarriegi ordiziar pintorea

Urte asko ez da Nikolas Lekuona ordiziar artista ahaztuta Euskal Artearen berpizkundearen sortzaile bezala errekuiperatu zela. Lekuona gerrak hil zuen. Jose Sarriegi, ordiziarra ere, Lekuonaren lagun mina, ahaztua du arte historiak; nahiz bera ere, gerraurreko berpizkunde horretan ilusio handiz saiatu zen. Eta gerrak, Euskal Arte nazional berriaren amets hori apurtu ez bazuen ere, bere obraren parte handi bat suntsitu zuen.

Ordizia, abangoardiaren lekuko

Jose Sarriegi, esan bezala, Ordizian jaio zen 1911n. Ordizian kokaturiko Arte eta Ofizio eskolan hasi zituen arte ikasketak eta Aszensio Martiarena ere izan zuen maisu. 1930ean bere gurasoek Goenkalen zuten etxeko terraza estudio moduan prestatu eta eztabaidagune bilakatu zen "gerraurreko belau-naldia" bezala ezagutu zen taldeko ki-deentzako. Hemen Sarriegiren babes-pean, Oteiza, Lekuona eta Balentziaga adiskide eta artistak batzen ziren, euskal gerraurreko abangoardiako izen gar-rantzitsuenak. Estudio honetan eta "Café Comercio", Sarriegiren fami-liaren kafetegian eztabaidatu ziren



1.- Narkis Balenziaga, 2.- Nikolas Lekuona, 3.- Jose Sarriegi, 4.- Jone Etxeberria (emaztea), 5.- Marisol Etxeberria (koinata), 6.- Jorge Oteiza, 7.- Aszensio Martiarena (maisua), 8.- Toribio Alzaga.

euskal artea berrituko zuten oinarriak. Beste ordiziar batekin, Joseba Rezola jaunarekin, aritzen ziren askotan Euzko Pizkundez eta EAJren artearekiko balentria ezaz; eta, ziur aski, honen eskutik 1934an Madrilen Jose Antonio Agirrerekin izan zuten guzti honetaz hizketaldi bat Sarriegi, Oteiza eta Lekuonak. Lehendakaria izango zenak harrera eskuzabal eta itxaropentsua egin omen zien, baina gerrak eten zituen bi urte geroago berritze proiektu

guztiak.

Sarriegi artearen azken joeren eza-gutzaile eta bultzatzaile bazen ere, bere lanean ez zen abangoardiarekin guztiz konprometitu, bere kideak ez bezala, berak Arteta edo Zuloagaren influen-tziak tartekatzen zituen errealismo berriarekin edo surrealismo apur batekin. Madrilen jasotako hezkuntza klasi-koak eta bere marrazkirako trebezia ikaragarriak pintore ona bilakatzen dute duda izpirik gabe.

LIUZ, S. L.

- Apalak, manparak
- Mantenimendu eta biltegiatzea
- Altzarigintza industrial
- Bulego altzariak

Tfona: 88 77 90 Faxe: 88 82 67
Mallotz- 25. Pab. ORDIZIA

IKAS EZAZU MEKANOGRAFIA

meca rapid

UDA GUZTIAN ZABALIK
Urdaneta, 23-1. ☎ 887278 **ORDIZIA**

MUGICA 19

MUJKA

LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

INPRIMATEGIA

URDANETA

KOLOREZKO OFFSETA - FOTOKONPOSAKETA - TIPOGRAFIA
DISEINU GRAFIKOA ORDENAGAILUZ

Urdaneta, 26 ☎ 880446 Faxe: 161407 **ORDIZIA**

Pintore eta gudari

Ordizian egin zuen 1932an lehen erakusketa "Arte Industrial" izenpean Lekuona, Quilez eta Zurutuza herkieekin. Urtebete lehenago "Artistas noveles" izeneko lehiaketan mila pezetako sari bat lortu zuen. Lau urte geroago 250 pezetako laguntza eman bazioten ere, sekulako iskanbila sortu zuen Lekuonaren koadroak erakusketatik kenduz, azken hau sari gabe utzi zutelako. Urte berean eta Lekuonarekin ere, Ordizian antzestu zen Laniñ-Belas lanerako eskenografia egin zuten.

Gerrak harrapatzean, EAJko kide izanik, "Amair" gudalostean sartu zen, bertan teniente izatera iritsiz. Horrek espetxera eraman zuen eta Joseba Rezolarekin batera heriotzera ere kondenatua izan zen. Zorionez, sententzia ez zen kunplitu eta bost urte t'erdi El Dueso, Larrinaga eta Burgo-seko espetxeetan eman ondoren askatu zuten. Azken honetako kaperan, gainera, fresko batzuk enkargatu zizkioten bertako mojek preso zegoela.

Bitartean Ordizian, frankistek, inkisizio prozesu bati ekin zioten Sarriegiren estudioa hustu eta bere lan guztia plazan jendaurrean erreaz.

Enkarguzko lanak

1949an eta kartzelaldiaren ondoren egin behar izan zituen enkargu lanen antzera, Ordiziako Udalarari zenbait



Oteizak egindako Sarriegiren erretratu bat. Atzean Oteiza, argazkia Lekuonak Ordiziako estudioan ateratakoa.

mural eskeini zizkion bere sarrerako iskilaretan egiteko. Bost xentimo ko-bratzeke egingo bazuen ere, dirudie-nez, orduan zinegotzi zen Armendariz jaunaren presioak medio, proiektua bukatu zitzaion.

51n Jone Etxeberria beasaindarra-ekin ezkondu eta erretratu zein mu-ralak enkarguz egiten jarraitu zuen, Basauriko elizaren kupula edo Bilboko zenbait fabrika eta kafetegietan bes-teak beste.

Hamar urte geroago Arantzazuko basilikaren berriztatze proiekturako absidea apaintzeko muralen proiektua aurkeztu zuen. Badirudi erabilitako er-



Sarriegik Lekuonari egindako erretratu, 1932 urte inguruan.

lijio, folklore eta industria eskenen es-tilo espresionistak ez zuela Arantza-zuko abanguardia proiektu aurrera-koian toki argirik; Luxio Muñozek egin zuen absidea Oteizaren eskariz.

1967aren urriaren 12an tronbosi ba-tek koadro batetan lanean harrapatu zuen. Heriotza Bilboko Frantziskota-rren enkargu bat bukatu gabe heldu zi-tzaion. Bere obra askoren desager-tzeak, artista honek merezi duen kata-logazioa zaildu eta bere berreskuratzea arte historiarako oztopatzen badu ere, bedi artikulutxo hau lehen urrats bat sakontze honetan.

Asier Mendizabal

**RENAULT
ORDIZIA
GOIERRI
AUTOAK**

**Zerbitzu hobea kostu
gutxiagoan**

Ezarritako pieza eta
akzesorioetan deskontuak

Zaldibiako bide-gurutzea, z/g
☎ 882005 - 881073 ORDIZIA

ILEAPAINDEGIA

AGURTZANE

Urdaneta, 42 - behea
☎ 88 19 50 ORDIZIA

GOZOGINTZA
PAGOSA
OKINDEGIA

Tfona: 885500 ORDIZIA

IRURENA

Lentzeria - Mertzeria

Urdaneta, 29
ORDIZIA ☎ 88 04 47

MIAMI
kafetegia

Etxezarreta kalea
ORDIZIA

Joxe Mari Izagirre segurarra Buenos Airesen

Joxe Mari Izagirrek 28 urte ditu eta ia bost urte bete dira Argentinara bizitzera joan zenetik. Gaur egun bere emaztea dena, mediku ikasketak bukatu eta Mutiloa aldera etorri zen bere birramonaren jaioterria ezagutzera. "Hemen ezagutu ginen eta urte bete egin ondoren bera Argentinara itzultzeko eguna iritsi zenean, berarekin joan edo hemen gelditu erabakitze-ko beharra izan nuen. Informatika bukatu nuen eta soldadutza egitea tokatzen zitzaidan, libratu nintzenez pentsatu nuen "irabazi" nuen urte bete horretan Argentinara joan eta han frogagitea". Joxe Mari joateko erabakia honela hartu zuela gogoratzen du.

Segurarra Buenos Aires hiriburuan bizi da. Bertara iritsi eta 6 hilabete egin zituen lan bila. Ez ziren garai errezak izan: "zailena hasera izan zen. Iritsi orduko ez nuen lanik, ez lagunik, inorekin erlaziorik eta nahiko gogorra egiten zen. "Zertan nago hemen?" pentsatzen nuen. Baina behin lanean hasi eta errutina batean sartu ezker ohitu egiten da, nahiz eta beti egoten den itzultzeko gogoia". Banku batean aurkitu zuen lana eta bertan 2 urte egin, baina Euska Herrira asko etortzen zela eta, zaila zuen laneko erlazioa. Ondoren katalan batekin telekomunikazio munduan hasi zen lanean eta han urtebete egin ondoren bere kontura ari da, alor berdineko enpresa txiki bat montatuta.

Euskal Herriarekiko harremana ez du inolaz ere galdu nahi. Hemengo prentsa (GOIERRITARRA barne) bidaltzen diote etxekoek. Batez ere familiarekin du komunikazioa. Bi urte t'erdiko Nere izeneko alaba bat ere ba-



du eta berari euskaraz egiten dio. Buenos Airesen hemendik aspaldi joandako euskaldunekin ere topo egiten du, baina Euskal Etxera ez da oso sarri joaten, lanarekin denbora handirik ez du eta. Han euskalduna oso ondo ikusia omen dago esaten digu: "langile, zintzo eta ondratu fama dugu, baita buru gogorrarena ere".

Orain arte San Joanetako zitara ez du faltatu Izagirrek. "Idea urtean behin herriko festak aldera etortzea da. Tarteetan beste aukeraren bat badago ere bai. Luzera berriz egunen batean itzultzeko asmoa dut, baina fetxa bat jarri gabe, egoerak esango du dena. Nere emazteak hemen aguantatuko lukeela pentsatzen dut. Bakoitzak bere familia eta bere mundua dauka baina garrantzitsua batera egotea da, han edo hemen berdintsu da. Momentuz han tokatu da eta ikusi egin behar".

Joxe Mariaren arabera, "Argentinan alde handia dago. Dirua dutenak oso ondo bizi dira, baina jende asko dago pobrezian. Gu berriz hor gabiltza, gure posibilitateen barruan bizitzen". Gai nontzean ez du bertara ohitzeko arazo handirik izan, jateko garaian adibidez, batez ere haragia jaten dute bertan eta haragi ona gainera. 5 urte hauen balantzea egiteko orduan berriz, ez dela da-mutzen dio. "Froga ondo ateratzen. Han ere lana arazo bat da eta alde horretatik ezin naiz kexatu, aurrera ateratzeko posibilitatea izan dut".

Datorren urteko San Joanetan berriro Segura aldean ikusi ahal izango dugu Joxe Mari, bitartean GOIERRITARRAren bidez ikusiko ditu berak inguru hauek.

 Mikel Albisu

KEMEN KIROLAK



Zumalakartegi, 1
Tfn: 88 51 68
ORMAIZTEGI

Erakusketa
Sukaldeko tresnak

Alpe


Mariaratz, 4
Tfona: 88 86 84

BEASAIN

IBAI - ONDO

**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Tfona: 880543 BEASAIN





San Juan eguna Astigarretan

Beasaingo Astigarreta auzoko argazkia dugu Gabirian jaio eta Astigarretara ezkondu zen Jesusa Erauskinek eman diguna. 70en bat urte izango ditu argazkiak, eta Felipe Bueno argazkilariak San Juan egunean ateratakoa da. Gari, galburu, babarrun, arto... sorten bedeinkapena egin eta sorta onenarentzat saria izaten omen zen. Jesusak gogoratzen digunez gainera, San Juan egunean goizean goiz Sanjuan loreak biltzen zituenak logurarik ez omen zuen izaten urtean zehar, San Juanek bedeinkatzen baitzituen.

Erretratu zaharrik baduzu, bidali Ordiziako 124 posta kutxatilara. Hutsik egin gabe itzuliko dira.

MODAKO BEGIRADAK



Ducci 95 Gilduma. D95 eredua. 6.750 pezeta

Ducci • Armani • Angaro • Dior • Vogue
Ferré • Zeiss • Vogart • Nina-Ricci • Reporter

Zatoz MULTIOPTICASera eta jar ezazu zure begirada modan. Ducci 95 bildumako diseinu berriekin, aurten zeu zara Top Modela.

**ZURE EGUZKITAKO
BETAURREKOAK
GRADUATZEN DITUGU**

90 egunetarako geroratutako ordainketa-sistema, erretegurik gabea, gure kreditu-Txartel bereziarekin.



Jar ezazu zure begirada modan

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1 Zba

J. Carlos Guerra, 1 • **ARRASATE**

Ibargaray, 16 • **BERGARA**

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • **ORDIZIA**

The Clover School of Languages



INAUGURAZIOA

ZAT0Z

gonbidatuta

zaude



HIZKUNTZAK: MAILA GUZTIAK, ADIN GUZTIAK,
SELEKTIBITATEA ETA CAMBRIDGEKO AZTERKETEN
PRESTAKUNTZA.



TALDE TXIKIAK (10 LAGUN GEHIENEZ).



IZEN EMATEKO EPEA IREKITA DAGO
95-96KO KURTSORAKO. MATRIKULA DOHAN.

EGUNA: Uztailak 24

ORDUA: Arratsaldeko 6etan

LEKUA: Domingo Unanue plaza, 5 (ORDIZIA)

TELEFONOA: 16 20 16